

ttipi ttapa

2005eko martxoaren 10a • XXV. urtea



Uxue Barkos
telebista legezaz

03

“Euskararen eremuan” telebista lokalak legeztatu ahal izateko Espainiako Korteetan egiten ari den lanaz solastuko da NaBAiko diputua martxoaren 11n Lesakan.



Baztan Rugby Taldea
Ohorezko Mailaren bila

24

Aurten lehen aldiz maila nazionalen bikain aritu ondotik, Ohorezko Mailara igotzeko faseari igande honetan ekin dio Baztan Rugby Taldeak.

ZALAINGO TUBO LANTEGIA

Produkzioa eta lanpostuak galduko dira

04



MUEBLES AMETS



Iarunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERATik da**
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com



-%20
ESKAINITZA
Gerezi eta
haritzeko
logelak
%20ko
deskontuarekin

INAUTERIE TAKO

BIDEOAK ETA
DVD AK
SALGAI

948 63 54 58



DATUAK...

- Uxue Barkosi orantzunez, José Montilla ministroak adierazi du Nafarroako Gobernuak ez zuela "euskararen eremurako" inolako lizentzia-aukerarik tramitatu.
- Urtarrilean, Nafarroako Parlamentuko alderdi guztiek eta "euskararen eremuko" udal eta mankomunitateek «arazo honendako soluzioa» eskatu zioten UPNren Gobernu eta Industria Ministerioari.
- Gai honen inguruan hitzaldia emanen du Uxue Barkosok martxoaren 11n Lesakan.



Uxue BARKOS Nafarroa BAiko diputatua Espainiako Korteetan

«Telebisten gaia aurrera ateratzeko klabea izanen da sozialisten jarrera»

J. IRIGOIEN

Baztan-Bidasoan eta Sakana-Leizaldean telebista lokalak legeztatu ahal izateko, Plan Teknikoa aldatzea eskatu zioten Nafarroatik Industria Ministerioari. Badakizu zertan dagoen afera?

Ez. Orain bi gobernuen eskuetan dago gai honetan aurrera egitea. Aste honetan Plenorik ez zegoenez, ez dut aukerarik izan ministroari pertsonalki deus galdetzeko. Dena den, Nafarroako Parlamentuko alderdiei dagoie orain gai honetan sartzeari sakontasun osoarekin. Gainerakoan, duela aste pare bat Espainiako Kongresuko Bozeramaileen Batzordean gertatutakoa izanen da azkena. Batzorde hartan telebista digitalaz aritu ginen, eta postura tinkoa hartu zuen Nafarroa Baik, urgentziazko tramitea geldiaraziz, eta aldaketa-proposamenak sartzeko aukera irekiz. Horretarako epea datorren astean bukatzen da, eta Nafarroaren antzera dauden komunitateetarako, bigarren hizkuntzan arituko den telebista-demarkaziorik ez dagoenean, dauden telebistak 2008a bitarte manten-

«Narritzekau da zein anbizio gutxi agertu duen UPN-CDNren gobernuak demarkazioen aukerak Ministerioari eskutzerakoan»

tzea proposatuko dugu. Hau da, deialdi berria ateri arte alegaltasuna mantentzea, "nolabait legalki" beti ere, ministroaren "borondatean" utzi gabe. **Nolako jarrera antzeman duzu estatuko alderdi nagusietan?** Sozialistekin hitzegin nahi dut, lehenbizi Nafarroakoekin eta gero Ministerioarekin, ea posible den aldaketa hori lortzea. Gai honetan klabea da sozialisten jarrera, eta momentuz argitzeko dago zein izanen den hartuko duten postura. Dena den, egia da Espainiako hizkuntzekiko Jose Montilla ministroaren jarrera beti positiboa izan dela, katalana baita, eta bi hizkuntza dutenen jarrera izugarri desberdina izaten da generalean. **Halere, Kontzesioen Baldintza Pleguak zehazten duenez, telebista lokal guztiak derrigorrez gartzelaniaz**

emititzera behartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak.

Gure ustez hori legearen kontrakoa da.

Nola ikusten duzun Nafarroan sortu den egoera?

Hamitzekoa da zein anbizio gutxi agertu duen UPN-CDNren gobernuak demarkazioen aukerak Ministerioari eskutzerakoan. Anbizio makal horrek agerian jartzen du, beharbada, zein diren UPNren interes mediatikoak. Bestetik, Espainian izanen den Telebista Digitalaren Lege berri honek oso kontuan hartzen du, eta azpimarratu egiten du, ofizialak eta koofizialak diren hizkuntzen babes. Beraz, ulertezina da ikustea nola momentu honetan Nafarroan dauden euskarazko bi telebista bakarrak, Europako Batasunaren dirulaguntza hartu dutenak gainera, ez dutela Nafarroako Gobernuaren babes legalarik eta ezin dutela lortu legeztatzen prozesuan sartzeari. Inork ez dio Nafarroako Gobernuari dirulaguntzarik eskatu, laguntza legala baizik. Horregatik diot, Nafarroako Gobernuaren egiazko interesak mediatikoak direla.



ARGAZKIA: ONDIRKOL

Zalaingo lantegiko Enpresa Batzordeko ordezkariak eskualdeko alkate eta zinegotziekin bildu ziren otsailaren 17an, Condesak aurkeztutako plan industrialaren eta egoeraren berri udal ordezkariari zuzenean emateko.

CONDESAK PLAN INDUSTRIALA AURKEZTU ONDOTIK

Zalaingo tubo lantegiaren lanpostuak eta produkzioa kolokan

Zalaingo lantegia erosi zuen Condesa enpresak lantegi honetarako plan industrial aurkeztu zuen urtarriaren 12an. Plan horren arabera, produkzioa ez ezik lanpostuak ere murriztuko dira Zalainen 2007a bitartean. Zalainen eraikuntzarako eta moblegintzarako egiten den egitura tuboaren produkzioa bertatik kendu nahi du Condesak eta kalibratutako eta autogintzarako tuboan espezializatu nahi du, arrentagarriagoa delakoan.

Aitor AROTZENA

Prozesu honen eraginez, produkzioa erdira jautsiko da 2007. urtera arte eta ehun lanpostu inguru galduko dira. Industria Plan honen arabera, Zalaingo produkzioa 2003ko 213.000 Tonatik 2007rako aurreikusitako 111.500 Tonako produkziora pasatuko litzateke, erdia baino guttiago. Produkzio jautsiera honek, lanpostuen murrizketa ere eragingen luke, 2003ean zeuden 474 langileetatik 340 langileetara. Batez ere behin-behineko lanpostuak, ebentualak, desagertuko dira eta hori somatzen hasi da dagoeneko lantegian. Sindikatuetatik jakinarazi dutenez, joan den urteko urritik 50 lanpostu inguru galdu dira, kontratua akautzen zuten behin-behineko langileei ez baitzaie kontratua berri eta dagoeneko 420

langile inguru ari dira Zalainen. Produkzioan ere hasia da jautsiera somatzen. ELAko Fermin Alzugaraiak jakinarazi duenez, «2002an izan zen produkzionik handiena, 220.000 Tona eta 2004an 167.000 Tonakoa izan zen. Horrek erran nahi du iritzi komertzialak eta plantillakoak beraien kabuz ezartzen joan direla».

Plana denboran oraindik gehiago luzatuko da, 2010. urtera arte. Orduko lantegiaren produkzioa zerbait igoko da, 117.000 Tona arte eta 2007an baino 50 langile gehiago izanen omen ditu lantegiak, 390 lagun.

Industria Planaren arabera, 15 milioi euroko inbertsioak egiten dira Zalainen, labe berri bat, zizalla eta akaberako ferrea instalatuko baitira 2010erako. ELAko ordezkariaren erranetan, «lantegia 1997an berrinaugu-

Fermin ALTZUGARAI

ELA



tuen bezala, guk kapazitatea eta enplegua erabiltzen dugu. Parametro horiek, beraienak eta gureak nolabait orekatu egin beharko dira. Negoziazio guztiek bi aldetik malgutasuna eskatzen dute, baina kasu honetan enpresaren aldetik ez da inolako malgutasunik izan. Enpresa berriak bere irizpide produktibo eta komertzialak ezartzen hasi da eta horrek ondorio zuzenak izan ditu. Enplegu aldetik, iazko ekainean 480 langile zeuden eta aurtengo urtarilean 425. Ebentualak dira, baina ez dira bi urtez ziren ebentualak, etxera joan dira 18-20 urteko altxintasuna zuten langileak.

Teorian negoziatzeko planteatu den plangintzak ez du inolako negoziatio-tarterik. Plan guztiak eztabaida daitezke baina enpresak ez du deusetan amore eman. Guk erraten dugu plan hau ez, baina bertze plan bat onartzen ahal dugu, bertze parametro batzuekin. Azkenean, enpresak errentagarritasunaren eta merkatuaren parametroak erabiltzen di-

"Teorian negoziatzeko planteatu duten plangintzak ez du inolako negoziatio-tarterik"

Julen MITXELTORENA

LAB



Plan hau Condesak egina da, baina Zalaingo zuzendaritza utzi du langileekin negoziatzeko. Hor bada hutsune bat. Guk ez dugu onartzen produktu-gama baten desagertzea eta makina guzuen desagertzea. Atal bat bai, baina dena ez. Condesako plana ukitu eta batzordearen proposamena adostu genuen. Gure proposamena harterakoan ezez-

"Ez zuzendaritzak planteatutakoa irentsi ezta aurka egin ere, erdibidea aurkitu behar dugu denok"

koan gelditu zen zuzendaritza, seguruenik manio-brarako-tarte handirik ez zutelako, Condesaren agindupean daudela. Orain afera blokeatua dago eta gure asmoa lehenbailehen desblokeatzea da. Horretarako Condesaren zuzendaritzara jo nahi dugu zuzenean eta gure asmoa adierazi: negoziatzen segitu nahi dugula, elkar puntu batera ailegatu nahi dugula eta lantegiaren onerako bi aldean adostasunarekin nola egin behar dugun lan hemendik aurrera. Hori izan beharko luke hemendik aurrerako harremana: Ez irentsi beraien eman dutena, ezta aurka egin ere, erdibide bat aurkitu behar da.

Patxi ALTU

UGT



Condesak Zalaingo plantan aurkeztu duen plan industrialak kezka handiak sortu ditu bertako langile guztiengan, eta eskualde honen inguruko enpresa aunitzetan. UGT Condesako zuzendaritzarekin negoziatzen hasiteko prest dago, plan industrialari dagokionez, ahalik eta enplegu gehien aurrera ateratzeko eta Zalaingo plantaren etorkizuna segur-

latzeko. UGTk informazio zuzena eta zehatza dauka, eta Zalaingo plan industrial ez badugu aurrera ateratzen, Condesako zuzendaritzak irteera bakarra bezala dauka Ekialdeko bideak hartzea, han bertan inbertitu eta produkzioak hasiteko zain omen daude. Badakigu hau azalzerakoan bertze gainerako sindikatuek alarmistatza hartuko gaituztela, baina denborazaten da testigu zuzena, eta 2003an ere erran genuen Zalaingo salteko arriskua zegoela. Denborak arazoia eman digu, zoritxarrez. Ordua ere erran ziguten gezurti, alarmistak, oportunistak... baina gaur horren lekuko gara.

"Plan industrialak ez badugu aurrera ateratzen Condesak Ekialdeko bidea hartuko du"

ratu zenean, orain planteatzen dena baino inbertsio aunitzez handiagoa egin zen, 3.500 milioi pezetakoa, tartean diru publikoa zela. Orain makina erdiak desmantelatu nahi dituzte eta gero egiten dutela inbertsioa, baina gerokoa potentziala da». Aurten eta heldu den urtean, gaur egun fabrikak dituen zapi makina kenduko lirakeke.

Zalaingo Enpresa Batzordea osatzen duten sindikatuek (ELAko 5 ordezkari, LABeko 4, UGTko 2 eta CCOO eta Confederacion de Cuadros bakoitza) ez dute begi onez ikusi plan hau. Produkzio eta lanpostu galeraz gain, egiturako tubo produkzioa uzteak eragina izanen du Lesakan Aceraliak duen produkzioan. Enpresa Batzordea Zalaingo zuzendaritzarekin biltzen hasi zen, baina enpresak, sindikatuen proposamenak baztertu eta negoziatio-



eten zuen. Geldialdi hau saihesteko, enpresa batzordeak zuzenean Condesako zuzendaritzarekin bildu nahi du martxoaren 10ean. Bilera honetan gertatzen denari buruz informazioa ematen zaie Zalaingo langileei biharamonatan egin gogo den batzarrean.

HISTORIA LUZE ETA KORAPILOTSUA

Aceralia Tubos, SLren bizi korapilotsua 1970ean hasi zen Laminaciones de Lesaka lantegiaren barmean eta Luberrondoko plantan. 1973an, greba luze baten ondoren, AHV erosi zuen Laminaciones, eta handik guttira Zalainen eraiki zen tutu lantegi berria. 1990. hamarkadaren hasieran, Espainiako siderurgiaren birmoldaketa sakonaren ondorioz, AHV eta Ensidesak bat egin zuten, CSI sortuz. Geroago, Aceralia izenarekin, elkarrekin bat egin zen, Arbedekin. Eta azkenik, Usinorekin bat eginenez, Arcelor sortu zen. 2004ko ekainean, Zalain eta Berribeiteko plantak, Arcelorek Nafarroan zituen bi tutu lantegiak, Arabako Condesa konpainiaren parte izatera pasatu ziren.

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apeztebea

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoin

Zuzendaria: Aitor Arotzena

Publizitatea: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia

Berriemakileak: Esteban Arotzena,

Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Pello

Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Do-

losor, Margari Etxenika, Koro Irizoki,

Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine

eta Krispin, Angela eta Xamo,

Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Jo-

seba Oligarai, Nerea Mibeltorena,

Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ain-

hoa Irizoki, Rakel Goñi, Rakel Ami-

go, Iratxe Kortsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu

Erakunde laguntzaileak: Bera, Lei-

tza, Golzueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpere-

ko udalak, Zugarramurdiako Akebare

elkartea, Bortziritako Euskara Man-

komunitatea, Mainerreko Zerbitzu

Mankomunitatea...

Harpidetza sartak:

Hego Euskal Herria	28 €
Espainia	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Mainerrea eta Leitza	23 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jaurrialtzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

ATMko zuzendaritzaren kontrako sententzia

ATMko langile bateri jarritako zigorraren gain, joan den ibeltzaren 17an izan zen epaiketa. Jada atera da sententzia eta enpresariari kondentatzen zaio, zigorra bertan behera uzteko agindua emanez. Epai hau garrantzitsua da LABendako, jarrera harro duen enpresari batekin aurkitzen garelakoz, bere nahia langileek kikildurik egotea delakoz, eta lantegian gertatzen diren txarkeri guztiak langileen bizkarretan jarri nahi duelakoz.

Gogoratu beharra dago 2003ko urrian hiru langile kanporatu zituela, haien artean Langileen Ordezkaría Egin ziren mobilizazioak ez zuten lortu nagusiaren erabakia zuzentzea.

Sententzia, eta modu tinko batean, irabazi izan duen langileari jarri zitzaion zigorra, enpresariari aldeak, langileen eta beren eskubideen hantekapean edukitzearen ahaleaginean kokatzen dugu LABetik.

Enpresariari intransigentziagatik, arazoa modu duin batean konpontzeko ahalegin guztiak ez dute inolako emaitzarik eman. Azkenean, enpresariari arrazoiak kaxkar baten ondotik, epaileak langileari eman dio arrazoiak.

LABetik ahalegin guztia eginen dugu langileen eta beren eskubideen defentsan, izan ATMkoak edo bertze edozein enpresetakoak, gure esku dauden tresna guztiekin, nola juridikoak, nola ekimen sindikalen bidez.

Ohar honen bidez ani-

matzen diegu langile orori, langileei ematen zaie edozein gehiegikeri edo mesprezuzko tratuen aintzinean ez isiltzea edo gordetzea. LABek konpromisoa hartuta dauka holako egoeraren aintzinean langileei babes guztia ematea, eta bide horretan jarraituko du.

Baztan-Bidasoako LAB

Ikurriña ere salgai

Idatzi hau otsailaren 25ean egina denez, makina bat hitz egin izan orduz geroztik, baina hala ere, arrazoi desberdinegatik herriko alkateari, Aralar bere taldeari eta EA-ri ustez, "gogoz kontra" ikurriñaren inguruan hartutako erabakiaz "zerbait" laburra esatea ezinbestekoa iruditzen zait. Egiten duzuenengatik nolakoak zareten ondorioztatu baitaiteke. Horregatik:

• Leitzako herriak, edo beste modu batera esanda; herriaren gehiengo batek, ikurriña nahi du. Ikurriña nahi du, ikurriña borrokaren, biziraupen eta beste arrazoi askoren artean, euskaldunon irudi eta ikur gisa agertu baita azken urteotan. Ikurriña nahi du, etxeko balkoietan, herriko sarreretan edota eskolako karpetetan baina ikurriña nahi du esanguratsu diren tokitan; udaletxea adibiderik hoberena.

• Ikurriña, gure nortasuna, izaera eta euskaldun izateko nahia eta gogoia adierazteko herriak berak hartutako irudia da. Kontuan har, euskalduntasuna aldarrikatzeo aukerak gero eta murriztagoak direla. Guk geuk ez ditzagun bide hauek erraztu.

• Alkateak dio; ... gogoz kontra baina, ... Nik galdetzen dut, nola entregatu behar duzue ikurriña, tolestuta? edo oihaltutako irudi historiko moduan gordetako duzue udaletxeko artxiboetan?

• Zuek bat-batean urtetan borroka-gai izan dena eta guztien artean erreferente bihurtu izan dena, ikurriñaren guda deiturikoa, zuek bukatutzat ematen duzue, udaletxeko balkoietan langile bati ken dezan aginduz. Gehiago irauteak ez al du merezi?

• Batzuk ikurriña mundu sinbolikoaren adierazpen bat besterik ez dela esaten dute. Baina sinbologi munduan eta egunerokoetan ere, Euskal herria ez al da gehiagi galtzen ari? Ez al gara gehiagi desagerrarazten ari?

• Eta azkenik esan, surretik esan bezala, urte askotako borroka izan dela ikurriña Herriko Etxean mantentzea. Azkenik, 1997an udalak ikurriña udaletxeko balkoian mantentzearen aldeko akordioa hartu zuen UPN-ren aurkako botoekin. Orain erabaki hau justifikatzerakoan alkateak dio; ... hala ere, kontzearen aldekoak gehiengo gara, EA eta gu eta UPN ere ados dago. (?)

• Herri honetan behin baino gehiagotan deitu edo joan behar izan dugu epailegietara ikurriña kaleratzeagatik, "bandera española" ez jartzeagatik, meatsu judiziala, meatsu ezkutua (telefonoa, gutunak, ...). Meatsuak sekulan ez dira falta izan. Eta orain, herriari inolako kontsultarik egin gabe, ikurriña behin baino gehiagotan erre dute horien laguntzarik gabe, zuek, erreferente ho-

rekin amaitu nahi izan duzue. Ideologi inperialistari men egin diozue.

• Gehiagi esatea bazuentzat, baina "amorrut politikoa" beste askorentzat. Batez ere erabaki hau hartu duten alderdiek kanpainen "desobediencia zibila" beraien oinarritzko puntuetan jartzen zutela gogoratzen. Are gehiago, gogoratu besterik ez, "ikurriñaren aldeko" legealdi honen hasieran egiteko manifestazio batean, besteren artean, Gara egunkariari Pabli Saenz alkateak eginiko erantzunetan zioena; "...udaletxean ikurriña gabe baina, inabilitatua...". Eta orain?

Egoera hau, beste garai eta maila ezberdineko izan arren, aurreko urtetan hartutako beste batekin alderatzen dut, Nafarroako bereizketa ekarri zuenarekin, alegia. Urte batzuk igaro ondoren damua etor daiteke agian, baina orduan, zer? Igaro den unea berri ezin baita berri harrapatu. Erosotasunaren truk Herria saltzen ari ote garen galdetzen diot ene buruari. Galdetu ez, ziurtatzen dut.

Mikel Illarregi Elberdin
Leitzako Alkate ohia

Lesakako inauterietako DVD eta bideoak

Lesakako inauterietako buroz ttipi-ttapa telebista argitara eman dituen DVD eta bideoen lehen dabiliko 4 kopia erabili ziren azaleko argazkiak, Javier Oronoz argazkilaria erak. Bakoitzari berea.

ttipi-ttapa telebista

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Berria 2005-02-23

«Ez dut prestaketa berezirik egin modelo izateko, neure kasa egin dut dena. Ez dakit ongi zer pauso jarraitu, hori da makurrena. Desfilatzen irakatsi zidaten Donostian egin nituen bi desfile horien aitzinetik. Eskarmentu handirik ez dut, baina beti gustatu izan zait telebistan desfileak ikustea, eta, orain, etxeko korridorean desfilatzen dut, praktikatzeko».

Maite SARRATEA
2005eko Miss
Nafarroa (Legasa)
Berria 2005-02-23

«Ospitalean egon nintzen bitartean alkate-ordeak ordezkatu ninduen. 2003an hauteskundeak ailegatu ziren eta aurkeztera animatu ninduten. Horrela egitea erabaki nuen, alde batetik nire herria maite dudalako eta bertzetik, nere egoeran entretenitzeko modu egokia delako, nire burua eritasuna ez den bertze zerbaitekin betetzeko. Bertzela buruak bueltak ematen ditu eta hori ez da ona».

Jexux AGERRE
Zugarramurdiko alkatea
D.Navarra 2005-02-21

• 11 GALDERA LABUR •

Hemen inguruan ez da ezaguna zaldi doma...

Hemen oso atzera gaudezi gauza honekin, 20 urte beharko dira.

Noiztik zaldiekin?

Bi urte, baina afizioa beti izan dut. Ikusi ere aunitz egin dut, ikasi ez baina ikusi bai.

Zu lesakarra, zaldia nongoak?

Bat espainola, bertzea portugeseño. Bakoitzak gauza ezberdinak egiten ditu?

Bat zeharka ib

Hori belauniko

Bakoitza mund

Apostu eta de

ra?

Lesakakoa iza

Ez gaude hori

tatuak eta astia

gogoia badut b

ta.

Afizio garesti

diak zaintzea?

Bai, garesti x

da.

Zaldia hezit

makila edo p

tzia?

Lehenbiziko pa

eta denbora be

makila pixko b

har da, baina x

Zaldia, todote

edo auto dep

boa?

Zaldia kapribo bat da, kobrea lanarako behar dut. Ikusi beharko litzateke bakoitza noiz behar den.

Bakeroen pelikulak gustoko dituzu?

Bai, aunitz baditut ikusiak.

Kanadan lanean ibilia zara: Ontario edo Nabaz?

50-50, bi munduak gustatzen zaizkit, biak politak dira.

Noizbait bueltatuko zinatekeen



Miguel ALMANDOZ
Lesakako zaldi hezitzailea



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

POLITIKA

Europako Konstituzioari ezezkoa eman zitzaion eskualdean

Erreferendumak ez zuen interesik sortu eta % 35,2ak bozkatu zuen

ttipi-ttapa

Abstentzioa izan da nagusi Eropako konstituzioari buruz otsailaren 20an egindako erreferendumean. Espainian, botua emateko eskubidea zuten %57,6ak ez zuen egin eta Nafarroan %58,2ak. Ttipi-Ttapa hartzen duen eskualdean, abstentzioa oraindik handiagoa izan da eta %64,8ra ailegatu da. 20.623 lagunek zuten botua emateko eskubidea gure eskualdean eta 7.260 bertzenik ez dira hurbildu hautesmahaietara.

Botu eman dutenen artean, balezkoa nagusi

da Espainian %76,7ak eman baitu konstituzioaren aldeko boza eta %17,2ak kontrakoa. Nafarroan ere balezkoa nagusitu da, %65,3arekin baina ezezkoaren aldeko bozak %29,2ra ailegatu dira. Euskadiko Autonomia Elkartaren ondotik, ezezko gehien eman duen komunitatea izan da Nafarroa. Ttipi-Ttapa hartzen duen eskualdeari dagokionez, botu eman dutenen artean ezezkoa nagusitu da, 3.758 boturekin, balezko 3.142 botu izan dira eta 376 botu txuriak izan dira.



Herria	Zentsoa	Botuak	BAI	EZ	Txuriak
ARANO	136	36	9	23	4
ARANTZA	563	170	67	89	14
ARESO	255	93	32	58	3
BAZTAN	6.344	2.031	999	906	126
BEINTZA-LABAIEN	232	73	42	30	1
BERA	2.905	1.007	437	522	48
BERTIZARANA	513	164	79	75	10
DONAMARIA	328	137	63	61	13
DONEZTEBE	1.114	392	227	151	14
ELGORRIAGA	168	93	27	52	14
ERATSUN	167	41	28	12	1
ETXALAR	658	204	84	117	3
EZKURRA	193	53	21	29	3
GOIZUETA	708	234	36	191	7
IGANTZI	502	185	82	90	8
ITUREN	389	138	55	75	8
LEITZA	2.472	785	233	520	8
LESAKA	2.247	859	386	443	30
OITZ	115	33	17	14	2
SALDIAS	113	33	11	20	2
SUNBILLA	588	183	63	115	5
URDAZUBI	305	132	67	51	14
URROTZ	155	58	29	21	8
ZUBIETA	257	68	17	46	5
ZUGARRAMURDI	196	80	30	47	3
Oso tara	20.603	7.281	3.142	3.758	376

ERROTAZAR
harategia

Etegiak, 3
Tel: 948 630 000
BERA

SAROB SANDERS pentsuak
okindegia

Etegiak, 41 • Tel: 948 630 000 • BERA

Zure inguruak bereziki garrantzitsuak dira (koroak, zeharkak, amarrak, kaskak...) eta arrazoikaririk gabeko garbitze behar duzue. Gu arduratsuki gure hornitzaileak. Termite eta Polifenol kontrako tratamendua.

BERA
DESINFECCIONES

© 948630155
BERA

ZJ
Zalain
jatebidea
Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

© Zalain SA • Tel: 948 63 09 07
Bera - Nafarroa

BERA

Udalak 2,1 milioi euroko lanak eskatu ditu Azpiegitura Planean

Herriko Etxeko beheitiko, lehen eta bigarren solairua moldatu nahi dira

Amaia eta Ainhoa

Udalak 2.101.431,24 euro eskatu ditu Nafarroako Gobernuko laurteko azpiegitura planean, herriko hainbat proiektu eta lanetarako.

Kopururik handiena hodi-biltzailearentzako eskatu da, 801.324,52 euroko kopurua. Lan horiekin, herriko ur zikinak bildu eta araztegiara eramaten dituen hodi-biltzailea berrituko litzateke. Egoera hagitz kaxkarrean dago hodi-biltzailea, 1978an egin zenetik arrunt zaharkitua gelditu delako. Hala, erreka ur aunitz sarzen da egungo hodi-biltzaileran, eta ur garbia ur zikinarekin nahasten da. Araztegiara ailegatzen den ur-kopurua behar lukeena halako 20 da. Egungo ormigoizko hoditeria fundizioko bategatik aldatuko da. Lanaren eta kopuruaren neurria ikusirik, urte ezberdinetan egitea aurreikusi da.

Herriko Etxearen moldaketa da eskatu den berte inbertsio nagusia. Herriko Etxea arrunt zaharkitua dagoela, eta funtzionalitate arazo larriak dituela kontuan hartuta, eraikinaren zaharberitzea aurreikusi da. Nafarroako



Herriko Etxeko beheitiko solairuan jarri nahi dira herritarrendako informazio eta arreta zerbitzuak.

Gobernuari 537.899,99 euroko laguntza eskatu zaio. Laguntza horiekin Herriko Etxeko beheitiko solairua, lehenbizikoa eta bigarrena moldatuko lirateke. Beheitiko solairuan jarriko dira herritarrendako informazio eta arreta zerbitzuak. Lehen solairuan idazkaritza, administrazioa, artxiboak eta bilera gela paratuko dira eta bigarren solairuan pleno-aretoa, alkatezaren eta udal taldeen bulegoak.

Beraz, bigarren fase baterako geldituko dira sotoa eta ganbara mol-

datzea eta igogailua jarritzea. Bi zatitan banatzearen arrazoia Azpiegitura Planean puntuzioa altua lortzea izan dela argitu du Jon Abril alkate ordeak.

Herriko hainbat karraketako sareak (ur hornidura, ur zikinen hoditeria, argia, telefonoa, gasa...) berritzearekin batera, zolaberitzea ere aurreikusi da honako karraketan: Legia karrika, eta Legia 19-23 urbanizazioa; Ekialde-Hegoalde karrika; Uraldea karrika; eta Herriko Etxeko Plaza-Gernikako Arbola Plaza-Plaza Zaha-

rra zatiak. Horren guztiaren aurrekontua 293.044,46 eurokoa da. Jamoteneako apartamentuetatik Kaxemarako zatia berritzeko laguntza ere eskatu da, 90.266,40 euroko aurrekontua duena.

Baserritara bidetegi dagoen, Suspela eta Xantelerrekako bideak moldatzea aurreikusi da, eta horretarako 149.463 euroko aurrekontua aurkeztu da Nafarroako Gobernura. Azkenik, Ibarainen hainbat hobekuntza lan egiteko, 229.431,97 euroko aurrekontua aurkeztu da.

FLASH

Emakumearen Astea

Uxo Emakume Taldeak Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatuta martxoak 9tik 13ra egingen da Emakumearen Astea. Martxoaren 9an, asteari hasiera emateko, IPESeko Begoña Gomezek "El arte de cuidar de ti misma" gaiaren inguruko hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean 19:00etan. Ortzegunean, martxoak 10, "Contra la pared" filme alemaniarra ikusi ahal izanen da 20:30etan. Ortziralean, ohikoa den afaria egingen dute Zubiondo Jatetxean eta ondotik Salaberri musikariak giroa alaituko du. Afaia 21:30etan izanen da eta 20 euro balioko du. Antzerkia ere ez da faltako Emakumearen Astean, Oihulari Klownek "Molestias clownicas" antzezlan eskainiko baitu larunbatean 19:00etan. Sarrerak 3 euro balio du. Asteartetik ortziralerara 18:00etatik 20:00etara eta asteburuan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara emakumeek egindako eskulanak, idatziak, argazkiak eta bertze hainbat lan erakusketa ikusi ahal izanen dela. Ekitaldi guzti hauek Kultur Etxean izanen dira.

Udaberriko Kontzertua

Martxoaren 16an, Isidoro Fagoaga Musika Eskolak antolatuta Udaberriko Kontzertua izanen da Kultur Etxean 18:00etan.

ANSONEA *Jatetxea*

- Eguneroko menua eta karta
- Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

PAUSOKA
MASAJA ZENTROA
AKUPUNTURA

Mugaldea 2, 1. esk - BERA
Tel. 948 63 11 48 • 639 73 24 28

© 948 631462
Altxaze 1 • BERA

KIRKILL

LESAKA

Korrikaren aldeko herri bazkaria eta ostatuen zozketa egingen dira

Telebisten lizentziari buruz arituko da Uxue Barkos ortziraletan Kasinoan

Aitor AROTZENA

Udaberria hurbiltzen ari zaigunaren seinale edo, kultur eta kirol ekitaldiz ongi hornitua dator martxoa. Martxoaren 4an maitasuna eta kontzientziaren ernateari buruzko solasaldia eskaini zuen Xabier Satrustegik; martxoaren 6an antzerki emanaldia eskaini zuen Berako Emaiza taldeak eta martxoaren 7 eta 8an Kotxe Gabeko Egunak izan ziren herrian. Martxoaren 1etik 18ra «Emakume Abertzale Batza, bidea zabaltzen» izeneko erakusketa zabalik izanen da Beti Gazte elkartearen, asteleheneetik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

Aitzinera begira, ortziraletan honetan, martxoak 11, «Telebisten lizentziak» gaiari buruz solasean arituko da Uxue Barkos Nafarroa Bai taldeko diputatua Espainiakongresuan, 20:00etan Kasinoan. Martxoaren 12an, larunbatarekin, Korrika ailegatuko da herrira goizeko 11:30ak aldera. Euskararen aldeko lasterkaldian parte hartu ondotik, herribazkari batean indarrak berreskuratzeke modua izanen



Argazkia: JOSEBA OLAGARAI

Jaialdi berezia ikusteko aukera izan zuten otsailaren 19an Kristo-Enea futbol zelai zaharrera hurbildu zirenek. Miguel Almandoz herritarrak eta Zegamako Jose Mari Esnaolak egin zuten apostua: gipuzkoarrak bortz enbor moztu behar zituen, lesakarrak argazkian ageri den zaldi gainean zeharka ibiliz kilometro bat egin eta bertze zaldiarekin, futbol zelaiari itzuli bat eman behar izan zituen, zaldia hamar aldiz belaunka jarritz. Azkenean zalduna nagusitu zen. Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, jende aunitz bildu zen Kristo-Enean desafio bitxia ikustera.

da. Ez da Korrikarekin lotutako ekitaldi bakarra izanen, Herriko ostatuek «Lesakako tabernak korrikarekin bat» zozketak egingen dituzte. Arratsaldeko 6etatik aitzinera jendeari bartela emanen zaizkio kontsumizio bakoitzeko eta arratsean hiru zozketa egingen dira: scooter motoa, Piriniotako

landetxe batean 10 lagunendako asteburu-pasa eta korrika produktuen lotea izanen dira sarritzat.

Martxoaren 20an Nafarroako ikastolen Arteko Krosa egingen da Lesakan, 10etatik aitzinera. Martxoaren 23an, azkenik, Musika Eskolak antolatuta Udaberriko Kontzertua eskainiko da

Udaletxeko pleno aretoan, 18:30etan.

Udaberriko landareak ezagutzeko sendabelar ikastaroa ere aitzinera doaie. Otsailaren 12an hasi eta ekainaren 4ra bitarte arituko dira larunbatero, 9:30etatik 13:30etara. Norbaitek parte hartu nahiko balu, 012ra deitu beharko luke.



PERTSONAIA

Gaizka SARASOLA

Lesakako labela duen diska

«Ixuriak» diska Gaizka Sarasola musikariaren eta Xabier Erkiñia soinu-artistaren elkarlanaren emaitza da. Bien artean argitaratutako diskoan Juanen Saralegiren ahotsa eta Irantzu Pastorren marrazkiak ere badaude. Euskal folkloreko musika-tresnak, silboteak, txirulak, albokak edota ttuntunak, oinarri direla, Lesakako mendi eta txokoetan zuzenean grabatutako naturaren soinuak aditzen dira CDan. Gaizka Sarasolak adierazi duenez, «lekuak berezko soinuak dituzte: euria, haizea... Horiek niregan sortzen duten sentsazioaren ondorioz sortu nituen kanta bakoitzaren hitzak. Halere, azkenean zenbaiten hitzak kendu egin genituen sobera esplizituak iruditu zitzaizkigulako». Inguruan ditugun soinuei eta hotsei buruzko hausnarketa izan nahi omen du diska honek: «Barrenera egingo dako lana da hau».

DEÑE
Lentzerria
Martzerria
948 637 114
SANTO DOMINGO 9, LESAKA

XATURETXEA
Zakak
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
MARTXO
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasola etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

Igande honetan eginen da Usategietako VIII. Auto igoera

Ortzegunean eginen dute Korrika Ttiki Landagain eskolan

Joseba eta Nerea

Igande honetan, martxoak 13, autoz beteko zaizkigu bertze urte bazez herriko errepideak. Inguruko auto-gidari eta zaleek egun haundia izanen dute, goiz-goizetik auto soinuak adituko baitira Usategietako bidean. Bederatzietan itxiko dute karretera eta 10,30etan hasiko dira lehenbiziko entrenamenduak. Ondotik, bi igoera eginen dituzte partehartzaileek. Azkenik, arratsaldeko 15etan aterako dira auto-gidariak egindako denborak eta ordu erdi bat beranduago eginen da sari-banaketa. Azkeneko ediziotan eskualdeko auto-gidariak nahiko lan txukuna egin

dute, ikusiko dugu aurtengo ere marka onak burutzen dituzten. Edozein moduz, Etxalarrera hurbiltzen diren guztiak igande goiz polita pasatzeko aukera izanen dute, urtero-urtero aski giro ederra izaten baita herrian auto igoeraren aitzakian.

Korrika 14 larunbatean

Martxoaren 10ean hasi zen aurtengo Korrika. Orreagatik Bilbora, Euskal Herriko hainbat herritik pasatuko da. Gure herrira ailegatu ez bada ere, hiru kilometrotan ibiliko gara Etxalartarrak lasterka. Izan ere, Altxata Kultur Elkarteak, Udalak eta Herriko Gazteek kilo-



Aurtengo Korrika herritik pasatuko ez bada ere, Altxatak, Udalak eta herriko gazteek kilometro bana hartu dute.

metro bana erosi dute. Larunbatean, goizeko 10ak aldera herritar guztiak aukera izanen dute kirol pixko bat egin eta euskarari laguntza ttiki bat emateko. Lerro hauen bidez denak animatu nahi zaituztegu Korrika 14an parte hartzera, herri bezala gure seinalea uzteko.

Korrika Ttiki ortzegunean

Ortzegun honetan eginen dute Landagain eskolako hauren euren korrika partikularra. Korrika ofiziala ez da Etxalartik inoiz pasatu baina eskolako haurrek urte parrasta dute euren propioa egiten. Aurtengoan ere herrian barna ibiliko dira lasterka,



Igandean motor burrunbak adituko dira herriko plazan eta Usategietako maldetan.

15:30etan Landagainetik aterita. Plazan akautuko dute ibilbidea, beranduarekin.

Altxata elkartearen batzar orokorra

Heldu den martxoaren 19an, San Jose egunarekin, eginen du Altxata elkarteak bere ur-

teko batzar orokorra. Kultur Etxean izanen da eguerdiko 12etan eta bazkide guztiak gonbidatuak daude bilerara. Jorratuko diren gaien artean joan den urteko kontuak, aurtengo aurrekontua, junta berri- tzea eta urte honetan eginen diren ekitaldiak eginen dira.

HERRIKO
OSTATU JATZETEA

Amurruak, 3 - 948 63 144
Ibilu - 948 63 144

LAGARRA

Prentsa	Fax publikoa
Liburuak	Plastifikazioa
Txakoa	a
Opariak	Enkoadernari
Rukuxumusu kamisetak	lanak

Egunero Astele
lanak

Tfnos./Fax: 948 63 70 30 • Alhiztu, 9 •

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA

Genaduentzat pertsurik egokiena
Tfn: 948635214

ETXALAR

arropak - maindirak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak

Goya Bera

Alhiztu, 5 • Tfn: 948 630 085

Alberto RETEGI
Altxata, 17 BERA • 948 630 763

abokatua

EUSKARA

Asteburu honetan hiru aldiz igaroko da Korrika gure eskualdetik

«Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai» lemapean egingen da

ttipi-ttapa

Martxoaren 10ean, ortzegunarekin, 18:30etan abiatuko da Korrikaren hamalagarren edizioa Orreagatik "Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai" izenburupean eta Bilborako bidean, hiru sartu-ateraldi egingen ditu ttipi-ttapa hartzen duen eskualdean. Lehenbizikoa, ortziral goizaldean berean egingen du Baztanen. Olague eta Belate igaro ondotik, aurreikuspenak betetzen badira martxoaren 11ko goizaldeko 1:52etan sartuko da Berroetan, 2:18etan Zigan izanen da, 2:44etan Iruritan, 3:03etan Elizondon, 3:36etan Arizkun, 3:55etan Erratzun eta

4:54etan Izpegiko lepotik igaro ondotik, Baxenafarroarako bidea hartuko du. Iparraldeko hiru hiriburuak, Donibane Garazi, Maule eta Baiona, pasatu ondotik, Azkainera martxoaren 12an, larunbat goizaldeko 2:53ak aldera ailegatuko da Donibane Lohitzunetik. Senpere (3:26), Cherchebruitauzoa (4:37) eta Dantxarinearatik 5:10etan pasatu ondotik, Otsondoko kaxkoan goizaldeko 6:34etan iritsiko da euskararen aldeko lasterkaldia. Handik Elizondora jautsiko da 7:39etan. Euskal Herri osoan Korrika bitan igarotzen den herri bakaretakoa izanen da Baztango hiriburua. Elizon-



Duela bi urte Korrika «ofiziala» eskualdetik pasatzen ez zenez, Bortzirietako Korrika antolatu zen. Argazkian, lasterketa Beran sartzen.

dotik Doneztebera ailegatuko da 9:10etan, Lesakako zubira 11:10etan, Lesakara 11:20etan, berriz ere Lesakako zubira itzuliko da 11:27etan, Berara 11:46etan eta Endarritsan 12:22etan, Gipuzkoan sartzeko. Larunbat eta igande arteko gauerdian sartuko da berriz ere Korrika Leitzaldera. Hernani eta Erefozu igaro ondotik, igande goizaldeko 0:30etan Aranoko kruzean izanen da, 1:15etan Goizuetako Iskibi kanpinean, 1:35etan Goizuetan, 2:40etan Leitzeko zentrolean, 3:12etan Basakabikobidegurutzean eta 3:45etan Leitzako sa-

rrean. Leitzatik Uitziko Gaina igaroz, Lekunberri eta Larraun aldera hartuko du Korrikak, gure eskualdea behin betirako utziz.

KORRIKA TXIKIA ETA KORRIKA LAGUNTZAILE

Korrikarekin lotutako bertzelako ekitaldiak ere antolatuko dira herriz herri. Baztango herrietan korrika txikiak egingo dituzte: Martxoaren 7an Oronoz eta Arraiozko eskolek Oronozen, goizean. Martxoaren 8an Almandoz eta Zigako eskolek Almandozen egingo dute, goizean.

Martxoaren 11n: Erratzu eta Arizkungo eskolek Erratzun, goizez. Amaiur eta Azpili-

kuetako eskolek goizez Amaiurren. Iruritako eskolan Iruritan, goizez eta Gartzaingo eskolak Gartzainen goizez. Baztan ikastolak eta San Frantzisko Xabier ikastetxeek martxoaren 11n egingo dute goizeko 12etan Elizondoko plazan. Lesakan herri bazkaria antolatua da eta ostatuak zozketa egingen dute.

Bertze aldetik, Korrika laguntzaile kanpainaren bitartez, AEKk jasan dituen erasoerik aurre egiteko aukera ere eskaintzen da. Euskal Herrian 300 komertzioetan beherapenak izateko aukera dauka Korrika laguntzailea egiten duenak, 12 euroren truke.

ERREKALDE

OSATUA

PLATER
KONTABILITATEK

PATXOKAK

ERREKALDE

Tel: 948 430 259 • BERA

TOLDOAK BALMENTA-KONPORMETA-ALOKAPENA-ERROTULAZIOA

MOSKITERAK, PERTSIANAK MOTORIZATIAK

VENECIANAK. **PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK**

Javier Manterola

• Lehen instalatzailea

• Iturgintza

• gisa

• kalifikazioa

Tel: 629 449 602 • BERA

• 948631076 • BERA

ARANTZA

Herritik eta Igantzitik 2.500 kilo janari bidali dira Argentinara

Behar-Bidasoaren bidez, Ines Lukanbio herritarraren misiora 30 metro kubikoko edukiontzia bidali da

Nerea ALTZURI

Behar Bidasoa Gobernuz Kanpoko Bidasoaldeko erakundeak urte saila darama beharrea daudenei laguntzen. Joan den otsailaren 26an, Irungo Doman biltegieta Hirugarren Munduaren lagunak diren erakunde honetako ordezkariak, tartean herritarrak, 30 metro kubikoko kontenedore bat Argentinara bidetan jarri zuten. Han, aitzineko ale bateko herriko kronikan aditzera eman bezala, Ines Lukanbio misiolari arantzarra dago. Bera laguntzen aritzen den eremuan behar handiak daude eta Bidasoaldeko erakunde honek lan handia egiten du elikagaiak, tresnak, arropak, altzariak, garbikariak, botikak, liburuak... eta bertzelakoak biltzen. Oraingoan, guzira ia hamarika tona bildu dira arlo guzietako elementuak batuta eta guk baino toki eta jende behartsuagoak direnek eskertuko dute. Tartean, herritik eta Igantzitik 2.500 kilo jakit Argentinako eremu behartsuetara joan dira. Bi herrietako apaiza, Martin Legarra eta eskualdeko bertzeherritar batzuek ere parte

hartu dute bilketan eta kargatzeko egunean.

Korrika Kulturala

Joan den larunbatean, hilaren 5ean, korrika kulturalaren barne, ekimen ezberdinak izan ziren Ekaitza elkarteak eta Gazte Asanbladak antolatuta. Lehenik, arratsaldean, Jon Arretxek diaporama emandua eskeini zuen, "Istanbuldik Teheranera 2001" izenburupean. Ondotik, ilunabarrean ziztor jatea egin zuten. Afalondoan, Mairu antzerki taldeak, bakarrizketa saioa egin zuen. Korrika hilaren 11ean eta 12an pasako da eskualdetik. AEKK antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa abudo da abian eta herritarrak ere mugitu gara.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Otsailaren 26an Behar Bidasoako bolondres taldea irunen bildu zen, Argentinara bideratutako osagai guziak kargatzeko. Bidenabar, modu batera edo bertzerara, paraje behartsu haletara zuzenduz laguntza eskaini duzuen herritarrei eskerrak eman nahi dizkizue lerro hauen bitartez.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Kontu emate bazkaria Zahar-Txokon

Joan den otsailaren 27an, Zahar-Txokon kontu emate bazkaria izan zen. 40 lagun inguru bildu ziren bapoz bazkaltzeko eta ondotik, pasa den urteko diru-sarreraren, gastuen eta elkartearen momentuko egoera ekonomikoaren berri eman zuten.

Jose I. Gonzalez Enguita

Pintura
lanak
orokorrean

948 235 482
948 632 922

Bilbao - 4º - 1. 402
31761 BEPNA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:
• Astelehenek 9:00etatik 13:00etara
• Asteazkenean 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Nomi: MALDAERREKA S.L., Bidea 71 • Tfno: 946 63 70 50
email@artekari.com

BURLATA:
ARTEKARI S.L., Tfno: 948 133226 Fax: 948 133713
Nomi: La Villa karrua, 4-bidea • 51000 BURLATA
gabe@artekari.com

- Lagile Autonomak
- Helazariak eta merki-argitza
- Nomak eta Arguro Sozialak
- Lan-kontratuaren laguntza
- Erpresa berri ezberdinen arloak
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontratuak
- IUR eta PPP
- Errenta arloak
- Elkartean eta jarduera espedienteak
- Bideratzearen planak eta aurkitutako

ARRANTZA

Martxoaren 20an irekiko da arrantza denboraldia

Koxka duten betiko amuak debekatu dira

ttipi-ttapa

Urtero bezala, martxoaren hirugarren igandean irekiko da amorrain eta izokin arrantzarako sasoi. Aurten martxoaren 20an izanen da denboraldi irekiera. Hasiara ohiko tenorean izanen bada ere, arrantzarako araudian hainbat aldaketa izanen dira. Seguruenik, garrantzitsuena, ohiko amuaren debekua izanen da. Hemengo arrantzaleek barren aldera koxka bat, arponcillo delakoa, duten amuak erabiltzen dituzte, amorraina hobeki hartzeko balio duena. Orain, koxkarik gabeko amuak erabili beharko dituzte eta horrek zailtasuna handituko du, amorrainak ihes egiteko aukera gehiago izanen baititu. Orain arte heriotzarik gabeko arrantzan bakarrik erabiltzen zen amu mota hau, amorrainak ahalik eta guttiñ sufritzeko.

Aldaketa gehiago ere izanen dira araudian.



Bidasoako lehen izokina bakarrik saltzen ahal da.

Asteko egun guzietan arrantza egiteko aukera izanen da, asteartean izan ezik. Orain arte ortzegunak izaten ziren arrantza debekua zuten egunak. Orain arte, amorrain denboraldia uztailearen 31n akautzen zen, baina aurten abuztuaren 1etik irailaren 30era ere arrantza egiteko modua izanen da, hori bai, amorrain heriotza eragin gabe eta berriz ere erre-kara bueltatuz. Bidasoa errekan amuki naturala debekatua dago maiatzaren 31 arte Donezteben, Ezkurra errekan

isurtzen duen tokitik beheiti; Ezkurra errekan, Zubietako zubitik beheiti eta Ezpelura errekan Oizko zubitik beheiti.

Izokin arrantzari dagokionez, 75. Izokina arrantzatzen den egunean itxiko da. Uztailearen hirugarren iganderrako kopuru hori beteko ez balitz, orduantxe itxiko litzateke denboraldia, izokinendako eremua Bidasoa errekan Doneztebeko San Tiburtzio presatik Endarlatsa bitartean eta tarte horretan, Bidasoara isurtzen duten errekan dago.

ARANO

Kontzejuko taberna berriz ere itxita dago

Kontxi KLABER

2004ko otsailean ireki zuten taberna Lola eta bere senarra Imanolek, denboraldi luzea itxita pasa ondoren bertako berrikuntzak zirela eta.

Lolak ekainaren 1ean, 5urte eta erdiko kontratua sinatu zuen Udalarekin bi aldeetako baten hutsegiteren bat sortu ezik. Hutsegitea horietako bat izan zitekeen hilabeteko errenta kopurua ez ordaintzea eta horrelaxe gertatu da. Udalak aurreratu omen zuen diru bat hasierako gastuentzat, baita argia eta telefono errezibuentzat, gero pixkanaka ordaintzeko akordioarekin, baina urtea pasa eta zorra eta irailako errenta kuttatu gabe zeukatenez, plenoan erabaki eta ordaintzeko 2005eko urtarilaren bukaera arteko epea jarri zieten. Epea bukatu eta ordaintzea egiteko zegoenez, eta bestelako planteamendurik aurkeztu ez dutenez, udalak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu zuen. Apirilaren

14an bilduko dira plenoan plegu berria onartu eta lehenbaila beharrez enkantean ateratzeko asmoarekin.

Korrikaren aldeko afaria

Korrikaren aldeko afaria antolatzen den martxoaren 5erako San Roke elkarteak. Afari ondorean herriko paisaiak eta ihauleritako diapositibak "atzeke urteetakoak" ikusteko aukera izan genuen, baita Xabier Legarreta eta Aritz Zerain bertso kantari eta Ansa ahizpak kantuan entzuteko modua ere.



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA

© 948 630 054
Aitzateko Plaza, 2
BERA

616 513 497

Pititi

ESKABAZIOAK

(Asentia)

10/NI DONEZTEBE (NAFARRA)

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate amuntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 060
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

GOIZUETA

Ongietorri beroa emanen zaio Korrika-14ri larunbat honetan

Martxoaren 19ko barrikoterako txartelak salgai daude

Esteban AROTZENA

Korrika-14ri merezi bezalako harrera eginen zaio herrian larunbat honetan. Lehen aurreratu genuen bezala, gaueko 1:35etan ailegatuko da gurera euskararen aldeko ekimen haundi hau. Aurretik, eta giroa berotu asmoz, ekitaldiak prestatu dira herrian. Horrela, 17:30etan

Marsal magoaren emanaldia izanen da garrantzitsua. Ondoren, Gaztebelean euskararen egoerari buruzko hitzaldia emanen da. Hau bukatu orduko triki-poteoa eginen da herri guzian barrena, eta 22:00ak aldera afari-pukaua eginen da Umore-Onan. Madalenako zubian hartuko dute goizuetarrek



Hainbeste esames eman duen Plazenek alorraren jabe da herria orain dela aste pare batez geroztik. 120.000 euro ordaindu da azkenean. Alkatearen hitzetan, orain hasi eta sei hilabete inguru beharko dira kalifikazio aldaketa prozesua bukatzeko.

Korrikaren lekukoa lehen esandako orduan.

BAITA BARRIKOTEA ERE

Aipatutako guzti guzti balitz, martxoaren 19rako jaso dute antolatzaileek Korrikaren aldeko ekitaldi nagusia: barrikote herrikoa. Ohiko lekuetan daude salgai aurrekoak bezain haundi eta arrakastatsu

izatea espero den afari honetako txartelak. Aipagarria da ere, astelehena 14an eskolako haurrek eginen duten Korrika Txikia.

Umore Onak 7 bazkide gehiago

Otsailaren 26ko urteko asanbladaz geroztik zazpi bazkide gehiago ditu Umore Onak, de-

nak gazteak gainera. 220 bazkide ditu guztiara elkarteak orain.

Europako erreferenduma

Otsailaren 20ko erreferendumean gure herriko botu-emalleen %81k Europako konstituzioari ezezkoa bozkatu zuen. Nafarroako portzentairik handiena.

ARESO

Egurra ateratzeko subasta egiten ari da Udala

Martxoaren 8an enkantean eta 15ean sesta eginen da

Juana Mari SAIZAR

Otsaileko udal bazarrean jorratu ziren gai garrantzitsuak aipatuko ditugu. Artegi, Ebarreko borda, Merku, Iturxo eta Larreko borda inguruetan egurra ateratzeko subastaren hasierako prezioa 28.908 eurokoa (gehi %8BEZ) da. Hiru motatako egurra du lote honek: haritz amerikarra, pinua eta izeia, 1.571 metro kubiko egur emango dutena. Le-

henbiziko enkantea martxoaren 8an egin da eta sesta martxoaren 15ean arratsaldeko 6etan.

Telebista Legea

Udalak bere ezadostasuna jakinarazi dio Nafarroako Gobernari telebista digitalaren legearen inguruan. Nafarroako Gobernuak gobernu zentralari presioa egitea eskatu dute, komunikabideak kontrola-

tzen dituzten legeak berrazteko. Zehazki telebista lokalak eta han erabiltzen diren hizkuntza anitzak errespetatzea eta indartzea eskatu dio Udalak.

Euskararen ofizialtasuna

Oinarriak plataformarekin bat egin du Udalak euskararen berreskurapenarekin nafar guztiak hizkuntza eskubide berberak izan di-



Negu honetan elur azpian egotera ohitu gara.

tzagun ziurtatzeko. Hori dena lortzeko hizkuntza plangintza eraginkorrak sortu eta horiek gauzatzeko beharrezko diren baliabide juridiko, ekonomiko eta pertsonalak ezarri behar direla uste du Udalak. Euskaraz Nafarroko lurralde osoan ofiziala izatea ziurtatu behar da. Hitz

batean euskararen normalizazioa lortzea.

Eluseder

Hormigones Leizaran enpresari 2.000 metro koadroko partzela saldu zaio Eluseder poligonoan 150.552 eurotan. Berak sortzen dituen hondakinak birziklatzea eskatu diote.

LEITZA

Ikurriña udaletxeko balkoitik kentzeko agindua gogoz kontra bete du Udalak

Otsailaren 24an kendu zen 1997. urtetik jarria zegoen ikurra

ttipi-ttapa

Otsailaren 24an udaletxeko balkoitik ikurriña kendu behar izan zuten, Nafarroako Epaitegi Kontentzioso-Administratibotik Udalera iritsi zen behin-betiko sententziari kasu eginez. Patxi Saenz alkateak emandako prentsa-oharrean «erabaki hau gogoz kontrakoa izan arren, ondorio larriagoak ekidin ahal izateko» hartu dela adierazi zuen.

Behin-betiko izakera duen epaian ageri denez, Udalak «Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikurra udaletxeko balkoian jarrita edukitzeagatik egiten ari den lege-urratzea uztea» eta «bertan behera utzi den legezko ordena berreskuratzea» agintzen du, horretarako 10 eguneko epea ezarritik. Epai hori ikurren Legean oinarritzen da eta udaletxean, herrikoa, Nafarroako eta Espainiako ez diren beste ikurrak jartzea debekatzen du. Lege horren arabera ikurriña «beste komunitate bateko ikurra» omen da eta ezin daiten jarri udal eraikinetan, ez kanpoan eta ez barrenean.

Behin-betiko azken epai hau ez betetzearen ondorioa, udalaren arduradun politikoak ezgaitzea izan omen litzateke eta arrisku hori saihesteko hartu da ikurriña udaletxetik kentzeko erabakia. Herriko



1976an jarri zen lehen aldiz ikurriña udaletxeko balkoian. 1997an udal batzarrek etengabe jartzea erabaki zuen eta orain «ondorio larriagoak ekidin ahal izateko» kentzea erabaki da.

talde politikoek gaia aztertzeke egindako bileretan, Aralarrek eta EAk sententzia betez ikurriña kentzearen aldeko jarrera azaldu zuten; Larraín herri plataformak, ikurriña mantentzearen aldekoa. UPNko ordezkariarik ez zen izan bilera horietan.

Leitzako udaletxeko balkoian 1976an jarri zen ikurriña lehen aldiz.

Urte batzutan kendu eta jarri ibili ziren, udalak jarri, guardia zibilak kendu, berriz jarri, ezezagun batzuk desagertarazi... 1997ko batzar batean, Leitzako Udalak ikurriña beti balkoian mantentzeko akordioa hartu zuen. Geroztik, ikurriña Nafarroako eta Leitzako ikurrekin batera egon da balkoian, otsailaren 24a arte.

Biharamonean egin zen ohiko udal batzarrera hainbat herritar hurbildu zen ikurriñekin. Ikurriña kentzeko erabakia beraien ezadostasuna agertu zuten eta udal ordezkariekin eztabaida piztu zen. Ikurriña jarri zuten balkoian, baina batzarra bukatu zenean, berriz ere kenduarazi zuten, txistu eta protesta artean.

FLASH

Asketa Txikiren elkarretaratzea

Leitzako Asketa Txiki abesbatzakoek Igualdako Elis Verdums haur abesbatzarekin elkarretaratzea egin behar dute. Martxoaren 19, 20 eta 21ean, 50 kataluniar Leitzan izanen dira eta hainbat ekitaldi antolatuta dira. Udaletxean ongi etorria eskainiko zaie eta bazkaria, jokuak, herri kirolak eta, nola ez, kontzertua ere izanen da. Martxoaren 20an, igandean, eguerdiko 12:00etan elizan haur hauek entzuteko aukera bikaina izanen da. Asketa Txiki abesbatzakoekin etxetan eginen dute lo eta ondoren, martxoaren 31tik apirilaren 3ra bitarte, leitzarrek joanen dira Iguadara eta bertako abesbatzako haurren etxetan hartuko dituzte.

Oinatz Bengoetxea finalean

Bietako bat behar zuen eta Oinatz Bengoetxea izanen da herriko ordezkaria martxoaren 20an Donostian jokatu den eskuz binakako txapelketaren finalean. Belokirekin batera finalerdietako bipartidak irabazi zituen. Marka handia egin du Oinatzek, lehen aldia baitu txapelketan parte hartzen.

Baztan-Bidasoako sagardotegiak

**LARRALDEA eta
LINDDURRENBORDA**

Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA

Telena auzoa • LEXAROZ
948 452121 • 626 494317

LINDDURRENBORDA

Nabaz auzoa • LESAKA
948 637212

construcciones
**MORTALENA
ANAIK**

Paularena, 29 - 2A ELIZONDO
948 580385 / 948 581473
627 400520 / 617 716488

Ezkontza

gehigarria
2005



Banity
DESIGNER S.A.
Luis Mariano 16-18
943 63 11 44
20302 Irun

Gonbidatuaendako
opar-itxoak,
andregaiendako
loresortak, eliza edo
epaitegiko apaingarriak...

Altzate 26 • **BERA** • 948 63 11 21

Ayla
argazkigintza
fotografia
Tel./Fax:
948 63 00 75
Bidasoa, 8
BERA

MERCHE
MODA HOMBRE
Giovanni Valdi - Sandro Sellini - Caramelo Gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943812626

Ezkongai entza azkenek tziak



ANDREGAIA:

Klasikoen
berrinterpretazioa
Diseinatzaile bakoitzak estilo propioa
proposatuz joera bat markatzen duen
arren, generalean erran daiteke 2005eko
andregaien soinekoek estilo klasikoa eta
bolumen tradizionalak momentuko mo-
da joerekin urtartzan dituztela, emaitza
dotore eta xumea lortuz.

Emakume-gorputzaren formak nabar-
mentzen dituzten modeloak eramanen
dira, gorpuzkera arina markatzen dute-
nak, *kankanik* eta beharrezkoak ez di-
ren osagarriak gabekoak. Gaineko al-
dean estuak eta jauskortasun handiko
ehun arinekin egindako gonekin eta bo-
lumen handiko dandarrekin kontrastea
egiten dute. Drapeatu arinak eta zehar-
kako mozketak, zeta eta gasa dotoree-
nekin egindako tolesdurak uztartuz, eta
horren emaitza, azken batean, andre-
gai moderno eta erromantikoa izaten
da.

Biluztasun kontrolatu eta leuna eraku-
tsiz, gero eta gehiago eramaten dira es-
kote handiak eta bizkarrak agerian, tul
eta organtza kapa bereziekin estaliz.
Osagai horiekin dramatismo handiko
efektua lortzen da. Era berean, ehun des-
berdinekin eskuz egindako trentzatu eta
korapilo itxurako akaberak nabarmen-
duko dira andregaien soinekoetan.

ko ko tenden-



GIZONGAIA:

Lebitak
ehun
berritzaileekin
eginak

2005eko gizongai-jantzien jo-
erak ez dira aurreko urtetakoe-
tatik sobera desberdintzen. Di-
seinatzaile nagusienek lebita eta
lebita motzaren proposamenak
mantentzen dituzte, hori bai, ehun
berritzaileekin eginak, tintaroi-itxu-
rako akaberetan, tonalitate bikoit-
zarekin eta marradunak. Gizongai
ausartenentzako trajearen ehun eta to-
nu bereko atorrak proposatzen dituz-
te.

Hala ere, senargaiek gero eta gehia-
go hasi dira txakea erabiltzen, ematen
duen itxura dotoreagatik batez ere.
Ehunei dagokienez, kotoi hotza eta
jauskortasun handikoak ikusiko dira
denboraldi berri honetan. Atorrak,
nahiz eta gehienek kolore argitsuko-
ak eraman, ausartenek kolore ilunak
erabiltzen dituzte (beltza, gris iluna...)

BEOLA
Posada - Palacio



Zure ezkontza egunean,
otordurik berexiena.

Kanika Nagusia, 1 • ALMANDOZ • Tfnoa: 948 505 002



Kortekak • Koloreak
Estentsioak • Trentzak

Bitburia, 59 • 31770 LESAKA • Tel: 948 637436



- MANIKURA
- MAKILAIA
- ESTETIZIEN

MARIA
ILEAPAINDEGIA

Zazpi Gurutze, 6
Tel: 948 450 922
DONEZTEBE



EZ

Zaldúa
Fotografat

Elizkeraren
erakundearen
erakundearen

Elizkeraren 948 580491 • Doneztebe 948 450364



ENDANEA

*Ezkontzarako behar dituzun
lore apaingarri guztiak*

Zatutze eta ikusi gure eskaintza

Jaizubia Auzoa 40, N1 (Irungo ospitaleko bidagunutzerak)
Tfnoa: 943 641710 • www.endanea.com
9:00etatik 20:00etara irekia
JAI EGUNETAN 9:00etatik 13:30etara



Lilura
Ilcapandegia

Rosa Seminario, 17
Tfnoa: 948 45 19 61
DONEZTEBE

ZUBIONDO
Jatetxea

350, 160 eta 40
lagunendako hiru jangela
Bazkalondoa nahi bertze
luzatzeko aukera
Auto eta autobusendako
aparkalekua
Haurrendako jolasparkea
Koktelarako leku aproposa

BANKETEA ETAKARTA
eskatu gure ezkontzetako menua



Alaia karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Etxe berrira - ko

dena

Ikustekoa da zenbat xehetasun behar dituen etxebizitza berriak! Etxe berrian bizitzera jartzeko beharrezkoak diren gauzen zerrenda bukaezina egiten da. Segidan dituzuen lerroetan zure ezkontzako opari-zerrendarako ideia desberdinak proposatzen dizkizugu:



- Edarientzako: Egunero erabiltzekoetaz gain, eginzazu kopen aldeko apostua. Horrela, gonbidatuek oparia bilatzerakoan bere irudimena erabil dezake. Ura, ardo txuria, ardo beltza, izozkia, kaba, koñaka, koktela, likorra eta beste hainbat edaritarako edalontziak daude. Multzo berean, botilak idekitzeko tresnak, botilak hoztekoa, pintzak, pitxerrak... sar ditzakezu.




- Mahairako: baxerak osagarri ugari izaten ditu: entsaladentzako ontziak, azpilak, frutak garbitzekoak, plater desberdinak (xokodunak, xabalak, ogiarentzakoak, postrekoak, etab.), saltsontziak, zopaontziak, eta joku desberdinak: aperitiborako, tearendako, kaferako, saldarako, gosarirako edota *sushia* hartzeko. Mahai-tresneria: jakiak zerbitzatzeko tresnak, nabalak, moka goilarak, kafe goilarak, arraultzeendako palak, pastelendako palak, sardexka desberdinak...




- Etxetresnak: Gizakiak izaten ahal dituen beharren adina tresna dago merkatuan, baina erabilienak aipatuko ditugu. Ontzi-garbigailua, mikrouhin labea, hozkailua, xurgagailua, lisaburdina, ikuzkailua, ile-lehorgailua, basculak, kafetera, txigorgailua, edertasunerako etxetresnak (depilazioa, bizar-kentzea, masaia).





- Irudia eta soinua: gure denbora libreko gutxiak direnez, gehien eskertzen den arloetako bat izaten da. Argazki kamera digitala, Reflex kamera ona, bideo kamera, MP3 irakurgailua, *home-cinema* ekipoak, telebista, goifidelitateko katea, eskuko ordenagailua, kotxerako irratia, sakeleko telefonoa, DVD grabagailua...
- Etxeko tresneria: eskuoihalak, alfonbrak, nordikoak, kuxinak, sofa-zorroak, koltxoak, maindireak, ezpainzapiak, eskutrapuak, lisatzeko ohola, kandelontziak, kandelak, gortinak, autsontziak, aterkiontzia, oinetakoak altxatzeko altzaria, nezeserrak...
- Bestelakoak: josteko makina, erreminta kutxa, lorezaintzako tresneria, eskuko eskailera...
- Sukalderako: kaxulak, fondue, sukaldaritzako liburuak, erosketak egiteko orgatxoak, egunero erabiltzeko mahai-tresna eta platerak, xukadera, paella-ontzia, laberako ontziak, postretako moldeak, budinontzia, gaztaontzia...
- Ideia originalak: jaioberriarentzako gauzak (haurra biltzen badute), fisikoak ez diren opariak (balio txartelak: masaiak hartzeko bonoak, jatetxetarako, antzerkirako...), matrikulak (kiroldegikoa, hizkuntza eskolakoa, kiroldegikoa), bainuetxe batean asteburua, motorra, konpainiako animaliren bat, landare tropikala...



TELLETXEA ARGAZKIAK

Plz. Zaharra, 26
LESAKA
Tel: 948 637 281

EZKONTZETAKO
ARGAZKI ETA
ALBUM DIGITALA
ERREPORTAIA

eta...
ezkontzen bagara?

Zuen ametsotako ezkontza bidaiak dugu.
Eta gainera gonbidapenak dohainik lortu ditzazkezu!

Viajes 65 EstivalTour
Ilekuta 1 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel: 948 63 04 51 / Fax: 948 63 06 41
bera@estivaltour.com / www.estivaltour.com


• bestak • ezkontzak
• kinto bestak • inauteriak ...

TRIKIDANTZ
Besta mota guztietako prest!
Tel. 659 37 99 17 • 646 29 85 68

Ezkontza antolatzeke

Honelako ospakizun instituzionalizatu batean gehiengoarengandik nabarmentzea zaila da. Hala ere, segidan azalduko dizkizuegu ospakizunaren aurretik, bitartean eta ondotik, irudimenari leku uzten dioten eremuetan, detaile atsegin bat ematen lagun dezaketen ideia batzuk:

- Otordu bukaerako oroigarria: Orain ia inor ez da gizonetzkoentzako puruak eta emakumezkoentzako oroigarri grabatua ematera mugatzen. Arlo honetan aukerak berrantolatu mugagabeak dira; bonboiak oparitu daitzke, larruzko eskumutur *unisexak*, ezkonberrien urtebetetze egunak eta ezkontzaren urtemuga azaltzen direneko agenda, fruitu tropikalekin betetako saskitxoak, ezkontza eguneko data duen loteria dezimoa, bikoteren gustuko abestiekin grabatutako CDa, perfumea, lore berezi bat...
- Lagun diseinatzaile bat izanez gero, zuen inzialen diseinu bat oparitzea eskaiozue, bikotearen irudi bereizgarri bat. Gonbidatuentzako arras deigarria izanen da.
- Zuen ezkontza eguna herriko festa nagusien egun berean ospatzea ezkontza antolatzeko orduan kaosa izan daiteke, baina esfortzu horrek mereziko du kanpotik etorritako gonbidatuek jai giro izugarriaz gotzatzen dutenean.
- Bikotea ezkontzara eramaten duen autoa: ibilgailua bikotearen izakerari egokitu behar zaio: bikote ekologista bada, zergatik ez tandem batean iritsi? Originala izatea da kontua, sidekarrean irits daiteke, zaldi-orga batean, *Las Vegas* estiloko auto batean edo Harley Davidson batean. Beste aukera bat autoa margotzea da, grafitiekin apaintzea, beti ere, gero garbitu daitekeen pintura erabiliz. Aukerak mugagabeak dira: lerroko patinetan iristea, elurra egin baldin badu trineoan, estilo ingeleseko taxi batean... dena gure irudimenaren baitan dago. Eta autoa aparkatu eta denak elkarrekin joatea nahi badugu, zergatik ez *tren txiki* komertzial horietako bat alokatu? Honekin ziur ongi pasako duzuela!
- Ohitura batzuetatik ihes egiten saiatu: adibidez, loreak lorontzietan jarri beharrean, zergatik ez lurrian edo liana trentzatu moduan jarri? edo elizatik ateratzerakoan arroza bota beharrean, zergatik ez petaloak edo xaboi burbuilak bota?



COsas DE CASA
Ezkontza,
bataio eta jaunartzetako
oparietan azken berrikuntzak
larunbat arratsaldetan itxia
Intzakardi, 9 - Tel: 948 450 409 - DONEZTEBE



FOTO MENA
Tel. 948 58 01 55. ELIZONDO. Tel. 948 45 08 25. DONEZTEBE.


Egun zoragarria opa dizuegu!




EZKON GONBIDAPENAK
ARGAZKI MUNTAIK
DESPEIDATARAKO KAMISETAK
948 631 521
Ezpeleta, 26 behe
RFDA

Bikote bakoitzenda - ko

Ongi errotutako ohitura da ezkontzaren ondotik egun batzutako oporraldia hartzea eta bidaia egitea. Ezkonbidaia esperientzia bakarra eta ahaztezina izatea da helburua. Bikote gehienek bidai kulturala eta aktiboa atsedenarekin uztartzeko aukera ematen duten bidaiak bilatzen dituzte. Zentzu horretan, azken urtetan bidai exotikoak gutxitu dira eta kultura ez hain ezagunak edo naturarekin lotutakoak gero eta gehiago eskatzen dira. Gehien eskatzen diren bidaiak Karibera (Riviera Maya edo Dominikar Errepublika), herrialde exotikoetara (Polinesia, Maurizio Uharteak, Sheycheles irlas) eta Ameriketara dira (Amerikako Estatu Batuak eta Patagonia). Ezin ditugu ahaztu gero eta gehiago egiten diren itsasotik kruzeroak. Bidaiatzeko orduan pertsona bakoitzaren gustua ezberdina denez, bidaia antolatzeke orduan komenigarria da bidai agentzia profesional baten eskutan jartzea.



INTERVIDEO
Ikusentzunezko
produkzioak




Fco. Javier Varela

**Bideo erreportalak
Profesionala**

- ETB eta TVErendako lanak egiten ditugu (Betacam Digital Formatoan)
- Merkatuko preziorik onenak
- Talde profesional batek egina
- Ezkontzetan esperientzia handia dugu
- Eskaintza berezia DVDa barne

Tel: 948 599 055
Mug: 609 488 612
Gure Egoitza · 31712 DANTXARINEA
Mendinueta, 7. 2.ezk 31700 ELIZONDO



MUEBLES
Telletxea

Rosa Seminario z/g
Tel: 948 450 258
DONEZTEBE

**Aprobetxatu aukera
paregabe hau
osorik haritzezkoa
den logela 3100€**



Zure hirirako hoberena
burutik beheraino.

Teknia
CORPORATE
✿

Teknia Corporationek zure Osasunerako, Edertasunerako eta Ongizaterako dituen zerbitzu guztiak Teknia Mediki Zentroko profesionalak zuzentzen dituzte. Tratamenduetan, azken belaunaldiako tresneria erabiltzen da: presoterapia, elektroestimulazioa, vacumterapia, etab. Lehenengo bisita medikuará, doan, eta jarraipena aukeran, tratamenduak irauten duen bitartean.

AURPEGI-TRATAMENDUAK

- KABIAR tratamendua.
- ANTI-AGING tratamendua.
- A bitaminaren tratamendua.
- Garbitze eta hidratatze tratamendua.
- Birsendotze-tratamendua.
- Larmintzaren garbiketa.

GORPUTZ-TRATAMENDUAK

- Zelulitisaren aurkako tratamendua.
- Birsendotze-tratamendua.
- Hanka nekatuaren tratamendua.
- Birmoldatze-tratamendua.
- Estresaren aurkako tratamendua.

BESTE ZENBAIT ZERBITZU

- Eguzkirik gabeko brontzeatzea. Autobrontzeatzea.
- Permanentea eta betileak tindatzea.
- Manikura eta pedikura.
- Depilazioa: Ezko beroa eta hotza.

✿ Eskia ezazu zure tratamendurako bonua 2005ko apirilak 30 baino lehen eta %10eko beharperia izango duzu.



IRUNGO BIHOTZEAN.

Juan de la Cruz, 5 (SAC/HAZEN ondarr) - 20302 - Irún - Tel: 943 660 150 - info@tekniamt.com - www.tekniamt.com

ABELZAINZA

Mendialdeko azpiegitura lanentzat dirulaguntza deialdia atera da

Nafarroako Gobernuak bertan behera utzia zuen iazko abenduan

ttipi-ttapa

Mendialdeko abelzaintza azpiegituretako dirulaguntza deialdia onartu du Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak. Deialdi hau otsailaren 23ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta udalera-kundeek hilabeteko epea izanen dute dirulaguntza eskariak egiteko. Guzira 131 udalak izanen dute dirulaguntzak eskuratzeko aukera eta horretarako 1.975.603 euro bideratuko ditu Nafarroako Gobernuak. Eskatutako baldintzak betetzen dituzten inbertsioen %60 lagunduko du Nafarroako Gobernuak, gehienez ere 180.000 euroko dirulaguntzarekin. Diruz lagundutako lanak aurten egin beharko dira, edo lanaren erdia bederen abenduaren 20rako gauzatu egon beharko du, bertzenaz dirulaguntza osoa galduko baita.

Diru sail honen bidez, udal erakundeek abeltzaintzarekin lotutako laguntza itxiak eskatzen ahal dituzte: aziendendako ur-hornidura eta elikadurarako ekimena, belagi eta esplotazioetarako bide publikoen hobetzea, hiltegien eraikuntza edo moldatzea, ibilgailuen desinfezio edo desinsektazio zentruen eraikuntza, baita abeltzaintza zer-



Abeltzaintza esplotazioetako instalazio edo azpiegiturak diruz lagunduko dira, pixen eta bertze hondakinen kudeaketa bertzeak bertze.

bitzuak eskainiko zituzten eraikin publikoak egiteko. Horretaz gain, abeltzaintza esplota-

zioetan bertzelako instalazio edo azpiegiturak ere diruz lagunduko dira, bertzeak bertze elek-

trifikazioa, telefonoa, ur-hornidura, pixen eta bertze hondakinen kudeaketa eta bertzeak.

Dirulaguntzak ez dira oraingoa aurkezpen-ordenaren arabera emanen

Joan den urteko abenduan bertan behera utzi zuen Nafarroako Gobernuak dirulaguntza deialdi hau. Horrek Bidasoaldeko alkateen harridura eta haserrea sortu zuen eta Jose Luis Etxegarai EAJ-PNVko parlamentariak erabaki haren arrazoiei buruzko galdera egin zuen Nafarroako Parlamentuan.

Diru-sail honetan sartzen diren proiektuendako dirulaguntzarik ez zen izan iaz eskualdeko Herriko Etxentzat eta udal ordezkariak aipatzen dutenez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan aurkezpen-ordenaren arabera ematen ziren subentzioak, aurrekontua akautzen zen bitartean. Honek egoera irriemangarriak sortzen zituen, es-

kariak aurkezteko epea irekitzen zen egunean zinegotziak lasterka harat-honatean ibiltzen baitziren, lehenbailehen iristeko intentzioarekin. Baina eskaria aurkezten lehenbizikoa izateak ere ez zuen deus segurtatzen, pertsonalki aurkeztutako eskarien aitzinetik bertze batzuk agertzen baitziren, inork ez dakien bidetik.

Aurkezpen-ordenaren irizpide hori aldatu egin da deialdi honetan. Honela, eskariak baloratzeko ahalmena Abeltzaintza Azpiegituren Batzordeari eman zaio, Batzorde honetan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta ordezkariak gehien duten bi nekazaritza sindikatuek, UAGN eta EHNEk parte hartzen dute.

BERTSOLARITZA

Nafarroako bertsolari txapelketaren finala igandean egingen da Lakuntzan

Xabier Silveira, Estitu Arozena, Julen Zelaieta, Xabier Legarreta «Arano», Joxe Juan Zubieta «Etxabe», Iñigo Ibarra, Jon Barberena eta Juan Mari Lopez izanen dira igande honetan, martxoak 13, 16:30etatik aitzinera Lakuntzako pilotalekuan egingen den Nafarroako bertsolari txapelketaren finalean. Lehendabiziko hiruak, Silveira eta Arozena lesakarrak eta Zelaieta beratarra, Larraintzar, Goizueta eta Iruritan egindako finalaurreko saioetan nagusitu ondotik sailkatu dira eta bertze bortzak puntuazioaren arabera.

Aipagarriena, ez bairik gabe, Bittor Elizagoien finaletik kanpo gelditu izana da. Saio motela egin zuen Elizagoienek Iruritako finalaurrekoan, eta ez da Lakuntzan ohol gainean ariko azken 26 urteotan hutsik egin gabe txapelketan parte hartu duen eta bi txapel irabaziak dituen arraloztarra. Erika Lagoma lesakarra ere, bigarren urtez segidan, finalaren atarian gelditu da. Finalisten artean, Silveira izanen da txapela janzteko favorito nagusia.

BAZTAN

Bozateko Museoaren hitzarmena sinatu dute Udalak eta Santxotenak

Ez bazen akordiorik dirulaguntza bueltatzea eskatzen zuten Iruñetik

ttipi-ttapa

Balleko Udala eta Xabier Santxotena Arizkongo Bozate auzoan dagoen museoari buruzko akordio batera ailegatu dira eta 20 urterako hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenaren arabera, eskultoreak lurrak eta eskulturak utziko ditu denbora horretarako. Honela, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza emateko eskatu zuen bezala, instalazioak jendeari irekitzearen baldintza betezen da. Akordioa nahi baino beranduago ailegatu da, zenbait ezaostasun baitzituzten Santxotenak eta Udalak, baina azkenean soluzioa bilatu diote. Hitzarmena zuzen betezen dela zaintzeko batzordea osatu da. Udalaren aldetik, Virginia Aleman alkatea, kultur zinegotzia eta kultur koordinatzailea izanen dira batzordean eta bertze aldetik, Xabier Santxotena bera, Teresa Lafagua emaztea eta



ARGAZKIA: OCHOA

Saharako herriaren ordezkariak Baztan bisitatu zuen Saharako herriaren ordezkariak Baztan bisitatu zuen otsailaren 21ean, Nafarroako Parlamentuak gonbidatuta. Bertiz bisitatu ondotik, Balleko Etxean hartu zituzten Virginia Aleman alkatea eta Santi Aldako zinegotziak, Iruñetik etorritako ordezkarietan, bertze zenbait taldeko ordezkariekin batera, Begoña Sanzberro UPNko parlamentaria eta herriko zinegotzia zegoen.

hauen seme bat. Alkatea kontent agertu da, afera zail honeri soluzioa eman diotelako.

Gogoratuko duenez, Nafarroako Gobernuak Turismo eta Promoziorako Zuzendaritza Nagusiak espediente ireki zion Balleko Udalari eta 2001eko

abenduan Bozaten aire librean museo eraikitzeo eman zion dirulaguntza bueltatzea eskatuzion, prentsan agertu zenez. Nafarroako Gobernuak dirulaguntzako 503.841,38 euroez gain, 36.772,52 euroko interesak eskatu zizkion Udalari. Baz-

tango Udalak arrenkura agertu zuen, berari jakinarazi baino lehen prentsara bideratu zelako berria eta ordurako akordioa gauzatzeko lanean ari zelako. Orain, hitzarmena sinatuta espediente ireki egin beharko luke Nafarroako Gobernuak.

Baztandarren Biltzarrerako kartel lehiaketa

Uztailaren 17an egingen den Baztandarren Biltzarra iragartzeko kartel lehiaketa deia egin du Baztandarren Biltzarra Elkarteak. Lanak, gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz, martxoaren 23ko eguerdiko 12ak baino lehen egon beharko dute elkartearen esku, honako helbide honetan: *Baztandarren Biltzarra Elkarteak*; 22 P.K.; 31700 Elizondo; Nafarroa.

Kartelek testu hau agertu beharko dute: *Baztandarren Biltzarra 05. Elizondon Uztailaren 17an. Eskuarak batzen gaitu. Kartelaren neurria gehienez 50x70 cmkoa izanen da, edozein teknika erabiliz.*

Bi diseinugile grafikok, Baztango bi artistak eta Baztandarren Biltzarra Elkarteak bi kidek osatutako epaimahaiak martxoaren 28tik aitzinet ezeztuzera emanen du epaia. Irabazleak 500 euro jasoko ditu.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Berriak

948 581 807
948 581 853

Itardin Iratxe karrila - ELIZONDO

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN
- Ogi artizanoak, egunekoak eta txapirak
JATETXEAN
- Menua eta karta (jasteburuak)
- Espezialitate partzialen erretaka jokietan

Okidoki industrialdia - Tfnoa: 948 45 34 03 - 31713 ARIZKUN

BAZTAN

Azpiegitura lanetarako 3,37 milioi euroko inbertsioak onartu dira

Horietako zenbait lan emateko lehiaketa deialdia ere egin du Udalak

Itipi-ttapa

Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak 3.375.072 euroko inbertsioak onartu ditu Baztanen ur-hornidura, saneamendu, karriken zolaberritze eta baserrietako bideak moldatzeko lanak egiteko.

2001-2003 Hirurteko Planerako eskatu zen Iruritan Apote auzoko ur sarea berritzeko 138.071,97 euroko dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak, 270.839,48 euroko aurrekontu batetik.

Elizondoko Arlan, Amaiuren, Erratzun, Elizondoko, Anizen eta Arizkunen ur-hornidura eta saneamendu lanak egiteko aitzinetik emandako agindu bat aldatu eta inbertsioa handituko du Toki Administrazio Departamentuak. Honela, 1.148.732 euroko aurrekontu batetik 707.559 euro ordainduko dituzte Iruritik. Lekarozko Huarte, Oharriz eta Arrazkazan auzoetako



Sara Olaizola eta Maialen Caminorentzat sariak
Iñigo Arista Elkarteak Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzat antolatutako «Kultur ibilaldiak Nafarroan barna» lehiaketan sarituak suertatu dira Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeko Sara Olaizola Egurrola eta Baztan ikastolako Maialen Camino Elizagoien.

ur sareak berritzeko laguntza handitu du Departamentuak eta 1.585 euroko aurrekontutik 996 euro jarriko ditu.

Sareak moldatzearen ondorioz egin beharreko karriken zolaberritze lanetarako ere dirulaguntzak izanen di-

ra. Elizondo, Amaiur, Erratzu, Iruritan Apote, Lekaroz eta Arizkun 1.357.594 euroko aurrekontutik 806.861 euro ordainduko dira.

Elbeteko sareak berritzeko eta zola berritzeko lehendik emandako agindu bat ere al-

datu du Toki Administrazio kontseilariak eta orai 175.267 euroko aurrekontutik 73.461 euro ordainduko dira. Azkenik, Arizkun, Elizondo, Lekaroz, Irurita, Arraioz, Berroeta, Amaiur, Erratzu, Elbete, Gartzain, Ziga eta Anizen baserrie-

FLASH

Arizkungo Berroko Zubia moldatzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernu Kultura eta Turismo Departamentuak ondare historikoko eraikinen kontserbazio eta zaharberritzerako dirulaguntzak erabaki ditu. Balleko Udalak 5.609,34 euroko subentzioa hartuko du, Arizkungo Berroko Zubia moldatzeko. Proiektuaren aurrekontua 8.013 eurokoa denez, Nafarroako Gobernuak %70 ordainduko du.

Zigako eskolako sabaia erori

Zigako herri eskolako sabaia zati bat erori zen otsailaren 25ean, ikastetxean inor ez zenean. Ondotik egindako azterketetan eraikina egoera kaxkarrean dagoela agertu da eta Zigako ikasleek Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean segituko dute ikasturtea, arazoa moldatu arte.

tarako bideak moldatzeko 433.116 euroko inbertsioa egingen da, 912.998 euroko aurrekontu batean. Anzamborda, Bagordi eta Elizondoko Sobrino bidean asfalto emanen da eta gainerakoetan or-migoia.

MENDI
ostiatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
AMAUIUR • 948453060

Maderas GOMEN
Zaldubia industrialdea
Tel: 948 580 645 - IRURITA

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroa: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Carlos
Juruiketxeu
Etzenike
abokatu
948 581 466
948 580 433
Franciskak 12
Amaitzeko 38
ELBETE

SENPERE

Korrika martxoaren 12an pasatuko da ortziral eta larunbata arteko gauean

Ihauteriak giro ezin hobean ospatu dira desfilearekin eta etxez etxeko ibilaldiekin

Franck DOLOSOR

14garren Korrika heldu den ortzirala eta larunbata arteko gauean pasatuko da herrian.

Senpertar korrikalariak goizeko laurak alderat erne egon behar dute. Goizeko 3.58etan karrika nagusitik iraganen da euskararen laasterkaldia. 4.11etan Herburuan izanen da eta goizeko 5.09etan Korrikak Dantzariatik utziko du Lapurd Nafarroako lurretan sartzeko gisan. Larunbata arratsaldean Hendaia eta Irun aldean izanen Korrika. Martxoaren 20an Bilbon bu-

ruratuko da AEKren besta. Autobusak aterako dira Baionatik Iparraldeko euskaltzaleek bat egin dezaten Korrikaren ekitaldi nagusiarekin.

Abiadura neurgailua

Ibilgailuen abiadura kontrolatzeko Viasis 3000 tresna berria baliatzen du herriko polizia. Seinale hunen ondoan pasatzean ibilgailuaren abiadura irakur daitaie. Poliziak tresna hori tokiz aldatzen du noiztenka. Tresna huren helburua da herri-tarrerri erakustea abiaduren mugak maiz gain-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR
Cloclo kantaria eta Clocettes dantzariak Senpereretat etorri ziren ihauteriak alegeratzerat. Artisat ospetsu hauek errobotak, dantzariak eta Lucky Luke bere zaldiarekin topatu zituzten bertzeak bertze Senperereko karriketan.

ditzen direla eta horrek irriskuak sortzen ahal dituela. Gogoan izan behar da karrikan 50 kilometra oren bakotz mugatua dela abiadura. Muga hori 30erat jausten da ibarrunen. Viasisek, alta, zenbaki handiagoak irakurtzen omen ditu maiz...



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR
Viasis 3000 tresna berria bide bazterrean ikus daitaie. Autoen abiadura irakur daitaie herriko poliziak ezarri duen tresna honetan.

HERRIKO ETXKO EDANTEGIN

 CAFE DE LA MAÏSIE
 MAÏXAN ETA VÉRONIQUE SARA • TEL. 05 595 42 519

Lanchas

 PARKETAK - TARIPIAK
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
 ESTALDURA OROKORRAK
 Bera - Tison: 948 630 735 - 407 406 781

BEINTZAko OSTATUA

 0 943 623 130
 BEINTZA-LANEN

ola SAGARDOTEGIA

 • 250 lagun eserita
 • Klimatizaturia
 102 Meaka auzoa
 20304 IRUN
 Tel.: 943 623 130

Landibar EGUNERO IREKIA
ZENTRO KOMERTZIALA

 300m pertum markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
 • Euskal Herriko preziorik hoberenak
 Tel: (0034) 948 599 400 • URDAZUBI

Mirari

 MODA PREMAMA
 Serapio Mujika, 14 • ☎ 943 615886 • IRUN
 Zalog
 Udaberriko Moda
 berria ihurtora

AZKAIN

Larunbat goizaldean pasatuko da Korrika

Tenorearen beha egoteko, gaubela antolatu da Bil Tokin

Angela eta Xamo

Larunbat honetan, martxoak 12, 14garren Korrika heldu zaigu, goizeko 2:30etan. Donibonetik etorriko da, eta herriko karriketan itzuli tiki bat egin ondotik. Senpereko bideatik segituko du bere bideketa. Aurten ere Azkaingo elkarte ainitz, Herriko Etxea eta hiru eskolek bandatuko dira lekukoa eskuz eskuz helarazteko gure herriko karriketan. Manifestaldi horren gaindi, konturatzen gira gure hizkuntzak toki gero eta garrantzitsua go hartzen duela herriko jenden bizian. Azpimarratu behar dugu, beraz, gau-eskolako elkarten lana, eta bereziki gure herrikoa. Aurten ere hiru klase idekiak dira, jakinez bertze bat edo bi idekitzen ahal zirela, bainan ez dituzte erakaslerik atzeman.

Korrika tenorearen beha egoteko, gaubela antolatua izanen da martxoaren 11n, Bil Toki gelan. Lau talde des-

berdinek parte hartuko dute beilaldi horren antolaketa. Gau eskolak Korrikaren jauntziak presentatuko ditu, Gemuku taldeak ostatu tiki bat idekiko du, Azkaingo besta komiteak taloak salduko ditu, eta Martintxo elkarteak kanta batzu botatuko ditu, momentu goxo bat pasatzeko lasterka egin aintzin.

Mus lehiaketa

"Union basque" edo kantonalarren bigarren itzulia antolatua da Plazan ostatuan, martxoaren 12an.

Plazan-eko txapelketa 3 astez antolatua izan da. 22 taldek parte hartu dute. Hortik, lau bikote atera dira, lehen kantonalean parte hartzeko: Mascotena/Sanchez, Quatreveux/Garat, Desert/Daguerre, Daguerre/Solorzano.

Lehen kantonala martxoaren 5ean egin da Pausun. Finala Louhossoan izanen da Bazkoko astelehenean.



2003ko Korrika Azkainena barna.

Neska korrika

Apirilaren 10ean, 7 kilometrako lasterketa antolatua da Esnaur inguruan, bainan bakarrik neskek parte hartzen ahal dute. "Neska korrika" egun hori Maider Larduchek pentsatua izan du, AS Elgarrekin eta Turismo bulegoaren laguntzarekin. Izen emai-

teak 5 euro kostako da. Benefizioa "integrazio batzordea" rentzat izanen da. Lasterketa eta gero, mutxikoak izanen dira plazan 11:30etan.

Himalaia-ren mugetan

Turismo bulegoak erakusketa bat proposatzen du "Himalaia" le-

maren gainean Bil Toki erakustokian, martxoaren 14etik 20a arte.

Abisuak

Martxoaren 12an, larunbatarekin, selauru husketa izanen da plazan. Igandean, martxoaren 13an, mutxikoak antolatua dira plazan, bigarren aldikotz.

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • t. 948 580 562 BILBOA

ZOANSA

SEAT AUDI VW SALMENTA

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Barbata, 3 - Arriaga Ind. 31709 LESAKA (barrio Berdoki)

Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

SARA

2004ko irabazien deklarazio zergei buruzko informazioa martxoaren 21ean

Korrikako kilometroak Cherchebruit eta Dantxarinea artean eginen dituzte herritarrek

Laetitia, Sandrine eta Krispin

2004ko irabazien deklarazioaren betetzeko laguntza nahi duteneri Baionako zergen serbituak Sarako Herriko Etxean egonen dira martxoaren 21ean goizeko 9etatik eguerdi arte eta arratsaldeko 2etatik 4ak arte.

Aparkaleku berritza

Denen etxeko eta San

Pedro ondoko aparkalekuetan harri xehea emango dute ziloak antolatzen.

Sagardotegira ateraldiak

Otsailaren 25ean, ostiralarekin Zazpiak Bat, dantza taldea, Astigarragako Egiluze sagardotegira joan zen autobusez. Biharamunean berritza, Sarako besten elkarteak egin zuen be-



ARGAZKIA: LAETITIA GORRIBOAN

Elizako egur erreak

Elizako sutearen ondotik herriak erabaki zuen egurra biltzea eta lantzea. Hala nola egurrak eremanak izan dira Arribe-Atallurat, Nafarroako herri batera, Juan Goriti zizelkariaren etxera. Eskultura ikusten ahalko da elizan. Argazkikoa eskulturaren prototipo bat egiazkoa 3,20 metrokoa izango da.

re ateraldia, orotara 30 bat lagun joan ziren.

Korrika

Aurten ere korrika heldu zaigu. Martxoaren 10an hasiko da Orreagan eta Bilbon bukatuko da martxoaren 20an. Euskal herria gu-

zia zeharkatuko du 10 egunez gau eta egunez gelditu gabe. Azken Korrikan 600.000 pertsona orotara parte hartu zuten. Sarako kilometroak Cherchebruit eta dantxarinearen artean dira, denetara zazpi izango dira. Korrika martxo-

ren 12an goizeko 4:30ak aldean pasatuko da. Bizkarrekoak erosten ahal dira Herriko Etxeko edantegian, Pleka trinketan edo Urtxolan.

Orduan bizkarrekoak jantzi eta goazen denak lasterka euskararen alde!

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi kaxkoko plaka martxoaren 20an ezarriko da

Lau etxe osorik moldatzen ari dira

Margari eta Koro

Aintzineko batean aipatu ginuen Atxuriako kaskoan zegoen plaka hondatuta zegoela eta Zugarramurdiko Herriko-Etxeak berri bat eginarazia zuela. Plaka hori bere tokian paratzen, Herriko Etxeak Atxuria Mendi Taldearekin batera martxoaren 20rako deialdi bat egin dute. Egun horretan plazatik goizeko 8etan oinez abiatuko dira Atxu-

riarat. Han plaka jarriko da, eta argazkiak atera eta bertso batzuk bota ondotik, Herriko-Etxeak eskainitako gosari bat emanen da mendi-kaxkoan berean.

Etxeen moldaketak

Herri baten bizia, bertze gauzen artean, etxeren moldaketan araberan neurtzen badugu, ez gaude gaizki Zugarramurdin, momentu ho-

netan 4 etxe goititik-beheiti moldatzen ari baitira: Etxorgaia duela hilabete batzuk su hartu zuen etxean garabia jarria dute eta lanean ari dira; Katalenean ere bertze grua bat emana dute eta fuego ari dira; Iruinea ere bertze lanetan dugu; eta herriarena den Ospital zaharrean barneko alde guztia botatzen ari dira, gero teilatua berrituko dute eta kanpoko lau paretak



ARGAZKIA: KORO

Etxorgaia, Katalenea, Iruinea eta Ospital zaharren moldatze lanetan jo ta fuego ari dira.

moldatu (guzti hau ekainaren 15erako finitu beharra omen dute).

Inauterietako argazkiak

Inauterietan egindako argazkiak Marixan ostatuan daude, jende-

ak ikusteko eta, nahi bada, kopiak eskatzeko.

Gisa berean, Atxuria mendi taldetik jakinarazi dute Mendi Federazioko txartelak eginak direla eta eskatu zutenek Marixanen biltzen ahal dituztela.



EZKONTZAK

Francisco Javier Olaetxea Villanueva eta Arantzazu Etxeberria Bayones, Lesakakoa eta Elizondokoa, otsailaren 26an.



SORTZEAK

Ane Telletxea Iribarren, Etxalarkoa, otsailaren 5ean.
 Garazi Ubliria Garmendia, Lesakakoa, otsailaren 24an.
 Adur Alsua Apezetxea, Goizuetakoa, otsailaren 11n.
 Iban Villoria Gomara, Iruritakoa, otsailaren 12an.
 Amaia Lizardi Muxika, Elizondokoa, otsailaren 19an.
 Garazi Lizardi Muxika, Elizondokoa, otsailaren 19an.
 Antton Fernandez Bidegain, Arizkungoa, otsailaren 19an.
 Arturo Iturralde Olabe, Iruritakoa, otsailaren 27an.
 Alaitz Iriarte Gomez, Berakoa, otsailaren 22an.



HERIOTZAK

Maria Jesus Etxeberria Mendiburu, Elizondokoa, otsailaren 18an, 69 urte.
 Anselma Eugi Arrieta, Elizondokoa, otsailaren 19an, 99 urte.
 Pedro Maylin Telletxea, Doneztebekoa, otsailaren 21ean, 72 urte.
 Maria Jesus Arriaran Angiozar, Ezkurrakoa, otsailaren 27an, 70 urte.
 Manuel Gofri Desgrans, Elizondokoa, otsailaren 27an, 89 urte.
 Vicente Otxoteko Irtzoki, Lesakakoa, martxoaren 1ean, 92 urte.
 Martin Noble Zabaleta, Ezkurrakoa, otsailaren 8an, 77 urte.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Martin NOBLE ZABALETA

Ekurran hil zen 2005eko otsailaren 8an, 77 urte zituela.

*Atzera begira, zeinen ederra den eman diguziona oroitzea
 Aurrera begira, zeinen ederra den gugan bizi zarela ohartzea
 Begien erretinetan izozturik eta bihotzean bero bero zaitugulako,
 Atte.*

ETXEKOAK

ERRUGBIA



ARGAZKIA: ONDIRKOL

Baztan Rugby Taldea Lekarozko zelaian, Zaragozako Unibertsitatearen kontra jokatutako ligako azken partidan.

Baztan Rugby Taldeak Ohorezko Mailara igotzeko Promozioa jokatuko du

Liga bikaina egin du Lehen Maila Nazionalen eta bigarren sailkatu da

A.A.

Aitzineko bi urteetan partida bakar bat ere galdu gabe Nafarroako Ligairabazi ondotik, aurturaren estreineko aldiz Lehen Maila Nazionalen jokatuko du Baztan Rugby Taldeak. Iñaki Bengoetxea entrenatzaileak aitortu digunez, «hasiera batean, liga berri batean antzeak, zure auzerak eta maila ezezagunak izatea suposatzen du. Abuztuaren hirugarrenak gelditzea sinatzeko prest baginen ere, 3-4 partidaren ondotik liga irabazteko moduko taldea geneukala ikusi genuen». Irabaziez, baina bere multzoan biga-

rrenak izan dira baztandarrak eta horrek Ohorezko Mailara igotzeko fasea jokatzeke aukera eman die. Lehenbiziko partida igande honetan jokatzekeoa zuten Lekarozko Kataluniako San Cugat taldearen kontra. 16 talde daude kanporaketa hauetan eta lehenbiziko biak zuzenean igotzeko dira eta bertze bik Ohorezko Mailatik jausten direnekin promozionatu dute. Igotzeko itxaropenik badute baztandarrak, baina ez dakite bertze taldeen maila nolako izanen den: «Auskalo!» —dio entrenatzaileak— bi kanporaketa pa-



Baloia tartean dela, bi taldeak indarka eta bultzaka, jabetza eskuratzeko.

satuz gero denok korrent!

Igoera lortzeko aldaketa dexente eragin luke taldean, desplazamendu luzeagoak, aurrekontu handiagoak,

profesionalak ere badi-tuzten taldeen kontra aritzea... Laguntzaile



Alboko sakearen bila borroka ikusgarria.

berriak ere bilatu beharko lituzke, «beti ere orain arte lagundu gaituztenak ahaztu gabe». Baztan Rugby Taldearen etorkizunera begira, bigarren taldea eta gazte mailakoa dute. Bengoetxeak erran digunez, «salatzen gara harrobia lantzen, baina ez da erraza biztanleria mugatua delako. Fut-

bola, pilota... kirol asko eta gazte gutti; gainera erugbia ez da asteburu-ero ikusten telebistan». Halere, betidanik izan da afizioa Baztanen eta banaz bertze 50 lagun biltzen dira Lekarozen partidak ikustera: «150era ere heldu gara partida batean. Ea igoera fasean 200etik goiti elkartzten garen!».

BAZTAN RUGBY TALDEA (2004-2005)

Unai ABANZABALEGI BASKARAN	IRUÑA
Manex AIZPURI IRIBARREN	ORONÓZ-MUGAIRI
Patzki ALMANDOZ IRIGOIEN	LEKARÓZ
Gogor ATXALANDABASO LASA	DONEZTEBE
Inigo ARREGI JAURENA	ELIZONDO
Josetxo BARBERENA IRAIZOZ	IRAIZOTZ
Itaki BARBERENA IRAIZOZ	IRAIZOTZ
Mikel BARRENETXE IRIGOIEN	ELIZONDO
Itaki BENGOTXEA MARTINEZ	IRUÑA
Ruben BEUNZA ERIZE	OSTIZ
Patzki BIDART	BAIGORRI
Julio CALLEJA RODRIGUEZ	IRUÑA
Pedro EZKURRA OSAKAR	URRIZOLA-GALAIN
Itaki EZKURRA OSAKAR	URRIZOLA-GALAIN
Jon FRANZESENA ZUBILLAGA	ELIZONDO
Jon IDOATE IRIGOIEN	LEKARÓZ
Mikel IRAIZOZ PEREZ	ESAIN
Jose Miguel IRIBARREN IRIGOIEN	ELIZONDO
Mariano IRIBARREN IRIGOIEN	ELIZONDO
Asier IZARRA NAVARRO	IRUÑA
Peio Xalbat JUANTORENA	BAIGORRI
Gabriel JUBERA VILLEGAS	OSTIZ
Oscar LAMERIÑAS KARRIKIRI	LEKARÓZ
Arturo LANDA MANSOA	IRUÑA
Pablo MARITXALAR ETXENIKE	SUNBILLA
Angel MUNARRIZ SAGASETA	ORONÓZ-MUGAIRI
Iban MUTILBA RUIZ DE AZUA	ANOZIBAR
Koldo OTEIZA ZUBIETA	MUTILOA
Pello OBREGOZO ISTILART	IRURITA
Xabi OROZKO EGILUZ	IRUÑA
Juan Angel PEROTXENA URANGA	ELIZONDO
Igor RUIZ DE LARRINAGA IDOATE	ELIZONDO
Jon SANSIÑENA ZUBIETA	ELIZONDO
Miguel Mari URRUTIA ARIZTIA	ARIZKUN
Xabi URRUTIA BENGOTXEA	ELIZONDO
Oskar YLLABONA CENÓZ	LATASA ODIETA
Jon Ander ZANGITU TORRONTegi	IRUÑA
Entrenatzailea: Itaki BENGOTXEA	
Delegatua: Javier INBULUZKETA	



PERTSONAIA

Agurtzane OBREGOZO

Emakumeen Sei Nazioen txapelketan jokatzeko ari den baztandarra

Emakumeen Espainiako erugbi selekzioa Sei Nazioen txapelketan parte hartzen ari da, Ingalaterra, Frantzia, Eskozia, Irlanda eta Galesekin batera. Agurtzane Obregozo 25 urteko lekaroztarra da Nafarroako jokalaria bakarra selekzio horretan. Irlandari irabazi eta Galesekin berdindu egin zuten eta bi partidatan entsegu baina egin zuen baztandarrak. Otsailaren 26an Eskoziaren kontra jokatu zuen Edimburgon, martxoaren 12an Ingalaterraren eta 16an Frantziaren kontra aritzeko da. 2004ko txapelketan hirugarren izan zen Espainia, Frantzia eta Ingalaterraren ondok. Aurten, bartz lehenbizikoan artean sailkatuz gero, 2006an Kanadan jokatu den Munduko txapelketan jokatzeko aukera izanen luke Agurtzanek.



Igorren (Bizkai) sortu eta iruñea bizi da Itaki Bengoetxea, BRTko entrenatzailea.

Itaki BENGOTXEA Baztan Rugby Taldeko entrenatzailea

“Jokalariek ikasteko eta entrenatzeko erakutsi duten seriotasuna izan da sekretua”

Zein da hain liga onaren sekretua? Alde batetik seriotasuna, jokalariek ikasteko eta entrenatzeko erakutsi duten portaera eta bestetik inguru honetarako kirolarako mantendu duten gaitasun fisikoa. Azken finean taldea osatzeko gaitasunean datza sekretua. Zein dira zuen jokuaeren ezaugarriak? Aurrelari indartsuak eta dinamikoak eta gibeletakoak, plakatzaileak, defentsan trebeak. Aurrean jokatzeko duen taldea dugu, sakontasunez eta abia-

duraz. Baina beti ere joku “kreatiboa” egiten saiatzen gara. Igoera lortuz gero, onartuko zenuketeen Ohorezko Mailan aritzea? Desplazamendu luzeak, dirua, jokalariei eta entrenamendu gehiago... faktore asko daude eta jendearen konprometuz maila ikusi behar. Kontuan hartu liga horretan profesionalak ere badirela. Gure aurrekontua dexente igo beharko litzateke. Jokalariek ordaintzeko modurik ez dugu, agian Iparraldeko gazte batzuekin!

AGENDA

egunez egun

ZINEMA

BERA

Martxoaren 10ean «Contra la pared» filme alemaniarra ikusgai Kultur Etxean, 20:30etan.

LEITZA

Martxoaren 11 eta 13an «El color del paraiso» filmea ikusgai zineman.
Martxoaren 18 eta 20an «Frio sol de invierno» filmea ikusgai zineman.

KONTZERTUAK

BERA

Martxoaren 16an Udaberriko Kontzertua antolatu du Isidoro Fagoaga Musika Eskolak 18:00etan Kultur Etxean.

LESABA

Martxoaren 23an Udaberriko Kontzertua antolatu du Musika Eskolak 18:30etan pleno-aretoan.

IKASTAROAK

ELIZONDO

Martxoaren 24tik 27 artio piano master class ikastaroa antolatu du FIDAH erakundeak Baztan Balleko Udalaren laguntzaz. Arizkunenea Kultur Etxean. Apirillean igerilekuetako sorosle izateko ikastaroa Giltzaudi igerilekuan. Izen-ematea 948 452301an.

SOLASALDIAK

BERA

Martxoaren 9an «El arte de cuidar de ti misma» solasaldia eskainiko du Begoña Gomez IPES-eko kideak 19:00etan Kultur Etxean, Uxua Emakume Taldeak Emakumearen Asteari hasiera emateko.

LESABA

Martxoaren 11n «Telebisten lizentziak» solasaldia eskainiko du Uxue Barkos parlamentariak Kasinoan, 20:00etan.

TELEBISTAKO TXOKOA



GARI ETA JOANA SUNBILDARRAK TANDEMEAN

Eskualdean barna ibilaldia bizikleta berexi batean

Ortziral honetan ibilaldi berexia egingen dute telebistako lankideek. Joana Hermandorena eta Gari Larraburu sunbildarren laguntzaz eskualde osoan barna ibiliko dira, herriz-herriz, goiko argazkian ikusten den bizikleta berexi horretan. Bizikleta baino, "tandema" erratea egokiagoa litzateke, horrela baitu izena binaka ibiltzeko bizikletak. Ez dira gisa honetan ibiltzen diren bakarrak gure eskualdean baina bai bakarrenetakoak. Horrela, luze eta zabal solastatuko zaizkigu tandemaren inguruan. Zergatik aukeratu zuten tandem, zein berexitasun dituen, zenbat probatan hartu duten par-

te, "Quebrantahuesos" ezaguneko parte hartzeko intentzioa, Italian tandemarekin egin zuten bidaia, euren arteko haserrealdiak bi gurgilen gainean... umorez eta irri bat baino gehiago eginez solastuko da Sunbillako bikotea Joseba Olagarai gure lankidearekin.

IFAUTERIETAKO BIDEOAK

ETA DVD-AK SALGAI

Oraindik salgai daude aurtengo ifauterietako bideo eta DVDak. Hortaz, aurtengo mozorro-saltsa eta besta giroa etxean gorde nahi dutenek oraindik badute aukera. Deitu gure telefonora, 948 6354528ra eta eskatu zurea!

DISKAK



«Troika-Tolosako ifauteriak»

ET INCARNATUS

ELKAR, 2005

Izaera herrikoia eredu izan nahi duen musika katalogo baten lanik garrantzitsuenak, beti ere, erreperorioaren aberastasunean bezainbete, interpretazioen kalitatean datza. Erreperorio herrikoia banean, festa nagusietako doinuak nabarmendu behar dira. Ifauteriak, munduko festen sorburu eta erreferentzia ditugu eta Tolosakoa, bereziki atsegina eta erakargarri da gurean. Et incarnatus ganbera orkestra, bertalde, gure herriko soka sekzioz profesional, emankor eta oparoena dugu. Luxuzko kolaboratzaile bezala agertu dira hainbat disko garrantzitsuetan hala nola film esanguratsu zenbaitetako musikaren grabaketan eta bertze proiektutan. Troika-Tolosako ifauteriak beren lehen disko hau, ifauteri usainaz zipiztundutako baratzetik sentikorra dugu.

BASERRIA

Datu iturria: NAFARROAKO GOBERNUA
(Otsailaren 18tik 25era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 40,00 € (-2,00)

Zerri gizona
1,115 € kilo. (+0,030)

Zerramak:
0,560 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,51 (=)
1.koa 3,31 (=)
2.koa 3,21 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,61 (=)
1.koa 3,44 (=)
2.koa 3,28 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg.kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
umuxak 228,00 (=)
idixkoak 245,00 (=)

Aretze nabarrak:
umuxak 180,00 (=)
idixkoak 205,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,98/3,04
Zaldi-behorak: 1,79/1,99
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 4,70 / 5,00
8-10 kilokoak: 3,60 / 4,10

JAKIN BEHARREKOAK

Hurbil ezazu zure haurra liburuen mundu zoragarrira

Gurasoek eredu izan behar dute telebista itzali eta irakurriz

Inoiz ez da sobera berandu zure seme-alaba ipuinen mundu zoragarrira hurbiltzeko, bere garapenerako ballagarriak diren estimuluetan aberatsa den giro batek bere nerbio-sistema garatzen eta burmuin-konexioak aberasten lagunduko baitu. Horrekin batera, inguruan dituen gauzekin interesatzen ikasiko du, bere behamen-gaitasuna handituko du eta ikastera estimulatuko du.

Haur ttikiendako ipuin goxo eta berats batzuk badaude, besarkatu, ferekatu... ahal direnak. Bainuan erabiltzen diren gomazko ipuinak ere badaude, ikastera estimulatzeaz gain, bainuaren ordua erraztu eta atseginago egiten dutenak. Sei hilabetetik aitzinera, zure seme-alabari plastifikatutako kartoi gogorrekoi ipuinak ematen ahal dizkiozu (hori bai, punta borobilduak dituztenak, minik ez hartzeko). Material hau ahora eramaten ahal du haurrak eta gustora esploratzen ahal du. Edozein gisara, erosten duzun liburua



Garrantzitsua da hurrei erakusten eta irakurtzen zaien liburuek marrazki eta ilustrazio handiak izatea.

erosten duzula, garrantzitsua da irudiak handiak izatea, haurrak ttikiak direnean orri bakoitzeko marrazki bakarrarekin, koloreekin, baita musikarekin ere.

Zure seme-alaba irakurketara hurbiltzeko modurik egokiena zure magalean jarri eta ahots ozenarekin irakurtzea da, marrazkiak behatzarekin erakusten diren bitartean. Honela, hitzak memorian artxibatuko ditu, eta oraindik erantzuteko gai

ez bada ere, ikusten ari zireten ipuinari buruzko galderak egin. Une batean ipuinak ikusteko gogorik ez badu, ez behartu, hala egiten baduzu, azkenean gorrotatuko baititu. Eta zure seme-alabak irakurketa maitatzeko gauzarik onena eredia ematea da, beraz, itzali telebista eta erakuts ezaiozu irakurtzea hagitz ekimen atsegina dela.

Rakel AMIGO
Bortziritako Gizarte Zerbitzuak

LIBURUAK

Medikuak
esan dit
minbizia
dudala



Medikuak esan dit
minbizia dudala

Joxe ARANZABAL

ELKARLANEAN 2005

izenburuko aitortpen soil eta apal horrekinxe hasten da liburua. Lotsaz, beldurrez, ohitura-faltaz isiltzen ditugun kontu horietakoa da berez, baina Joxe Aranzabalek bere burua biluzik erakustea erabaki zuen, gauzak naturaltasun osoz kontatzea, eta horren ordaina elkartasun-uholde bat izan zen. Gertakariekin batera Internet bidez plazaraturiko kronika hau osorik eskaintzen digu orain egileak, liburu moduan: «Nire kontakteeak beste batzuei

lagundu egingo diela uste dut. Niri gertatua kontatuz, ikasteko aukera ematen diadala uste dut irakurle batzuei». Gertatu ahala kontatutako kronika bat da Aranzabalena, Lance Armstrong txirindulariak, erraterako, prozesu guztia akaututakoan idatzi zuen bere lekukotasun liburua. «Gertatu ahala kontatzeak beste biluztasun bat eskatzen du—dio egileak— eta gaitzaren prozesuan dauden gorabeherak oso nabarmen agertzen dira».

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Martxoaren 13an Belatera ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek.
Martxoaren 20an Astigarragara ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek.

ZUCARRAMURDI

Martxoaren 13an Mendaurea aterako dira Abxuria mendi taldekoak.
Martxoaren 20ra Abxuriara ateraldia, kaxkoan plaka ezartzeko.

ERAKUSKETAK

LESACA

Martxoaren 1etik 16ra «Emakume Abertzale Batza, bidea zabaltzen» erakusketa zabalik izanen da Beti Gazte elkarteak, astelehenetik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

BERA

Martxoaren 8tik 13ra «Emakumezkoen eskulanak, idatziak, argazkiak...» erakusketa zabalik izanen da Kultur Etxean, Uxua Emakume Taldeak antolatua.

AZKAIN

Martxoaren 5etik apirilaren 14ra Didier Bies eskulturgilearen erakusketa Azkaingo Herriko Etxean. Ortzegunero, eskulturgilea bera erakusketan izanen da.
Martxoaren 14tik 20ra Himalayari buruzko erakusketa proposatu du Turismo Bulegoak Bil Toki erakustokian.

ANTZERKIA

BERA

Martxoaren 12an «Molestias clownicas» antzeziana eskainiko du Oihulari Klown antzerki taldeak 19:00etan Kultur Etxean, Uxua Emakume Taldeak antolatua. Sarrera: 3 euro.

TALLERES SANTESTEBAN
 C/ 34 450282 • DONEZTUBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA
 (6-10 HILABETEKOKA)
 CLIO, KANGOO, MEGANE,
 LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR,
 SPACE, TRAFFIC COMBI

SAMPI ARAGON
ZOANSA
 Lur ortzariko ibilgailuak (4x4),
 furgonetak eta
 autoak erosten ditugu.
 Eskura ordaintzen dugu

ko-kristalak tintatuak, 1998an
 matrikulatua. Auto kapriboso.
 ☎ 948 510391 (20:00-
 etatik aurrera).

Ebro-Nissan kamioiaren
 motorra salgai. Perkins mo-
 deloa. Egoera onean. ☎ 678
 860244.

ANIMALIAK 601 Emateko

Katukume zoragarriak
 emateko, hiru hilabeteokoa.
 ☎ 948 637213.



Kurt, urte beteko artzal txakur
 alemaniar mestizoa
 zainduko duen pertsona edo
 familia bati opari emango ge-
 nioke. ☎ 610 868750 (Ra-
 gueri).

Etxeko bi zakurkume ha-
 gitz politak oparitzeko Aran-
 tzan. ☎ 948 634142.

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Setter Ingles txakur eme
 bat, zozketa batean tokatu-
 takoa eta Argilots ekarria,
 pedigrearekin eta paper guz-
 tiak dituena, trukatu nahiko
 nuke setter ingeles zakur-
 kume ar batekin. ☎ 948
 450931.

Zerrama bat, 4 urtekoa sal-

BERAko UDALA AYUNTAMIENTO DE BERA

U.U.1-eko XEHETASUN AZTERLANA ALDATZEA, HASIERA BATEZ ONESTEA: M^o C. IRAZOQUI

2005eko otsailaren 1ean, Udal Tokiko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoren dagoen erabakia onetsi zuen:

- 1.- M^o CARMEN IRAZOQUI IRAZOQUIK aurkeztutako U.U. 1-eko Xehetasun Azterlana aldatzeko eranskina hasiera batez onestea, honako ohararen arabera:
 - 1.1.- Oinezko bidean automobilak garajeetara sartzeko jari behar den mutuikoko giltza Udalak izanen du bidea ireki behar den kasuetarako.
- 2.- Aipatu Xehetasun Azterlana jendaurrean jarzea 20 eguneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko iragarriaren bidez Iragarri Taulan eta Nafarroan edatitzen diren egunkarietan, bederen, argitaratua.
- 3.- Erabaki hau interesatuari eta U.U. teko gainontzeko jabeei bidaltzea.

Bera, 2005.02.18
 ALKATEA

Helena Santesteban Guelbenzu

BERAko UDALA AYUNTAMIENTO DE BERA

EZTEGARA 19.eko XEHETASUN AZTERLANA HASIERA BATEZ ONESTEA: F. eta G. ARTIEDA.

2005eko urtarrilaren 31ean, Udal Tokiko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoren dagoen erabakia onetsi zuen:

- 1.- FERMIN ARTIEDA ARANDIA eta GORANE ARTIEDA APEZTEGIAK aurkeztutako Xehetasun Azterlana, Eztegara 19.eko eraikiari dagokiona, hasiera batez onestea, honako ohararen arabera:
 - 1.1.- Bero garaien eginen diren terrazak ezin izanen dira ibi, ez zati ez osorik.
- 2.- Aipatu Xehetasun Azterlana jendaurrean jarzea 20 eguneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko iragarriaren bidez Iragarri Taulan eta Nafarroan edatitzen diren egunkarietan, bederen, argitaratua.
- 3.- Erabaki hau interesatuari bidaltzea.

Bera, 2005.02.18
 ALKATEA

Helena Santesteban Guelbenzu

gai. ☎ 948 627557 (Arrats-
 ko 9etatik aitzinera).

DENETARIK 702 Salerosketak

Sukaldeko altzari, sukalde
 industrialak, lavavajillas, fre-
 dora, komedoreko marmo-
 lezko mahaiak eta aukiak
 salgai, aitzainuzko fregade-
 rak. ☎ 948 585036.

Matrimonioko logela oso
 bateko altzariak salgai. Lau

urte ditu logelak, oso ongi
 zainduta. ☎ 680 669184 (Ma-
 ite).

Lastoa (ahotza) salgai. Ga-
 ragarra-garia-larra. Etxera
 igortzen da urte gutxian. ☎
 607 457004 - 943 366040
 (gauetz Dani)

Lehenko gurdilaren bi gur-
 pill erosoak nituzke, 60 cm.
 inguruko zirkunferentzia eta
 zortzi erradiokoa. ☎ 948
 393070.

BERAko UDALA AYUNTAMIENTO DE BERA

OIHAN ENKANTEA MAITZGORRIETA PARAJEAN

BERAko Udalak plegu itxian bidezko enkante irekian salgai jarriko du oihan probetxamendu hau:

- 1.- Plegu insignis, matarasa, oin kopurua: 1.592, 3.648 m² zur, 366 m² egur, hasierako prezioa: 180.799,36 euro (zuzaren prezioa: 179.460,44 euro; egurraren prezioa: 1.318,93 euro); parajea: Maitzgorrieta.
- 2.- Plegu insignis, matarasa, oin kopurua: 277, 218 m² zur, 17 m² egur; hasierako prezioa: 845,93 euro (zuzaren prezioa: 786,32 euro; egurraren prezioa: 59,62 euro); parajea: Maitzgorrieta.

Proposamenak aurkezteak: Proposamenak, ondoren doan eredu ofizialaren arabera, baldintza pleguaren 2. oinarrian eskatzen diren aginekin batera, Udaleko idazkaritzan aurkeztuko dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta biharamunetik hasita hamabostgarren laneguneko eguerdiko ordu bati baino lehen. Azken egun hau larunbatarekin suertatzen bada, astelehena arte luzatuko da aipatutako epea.

Proposamen ekonomikoa jendaurrean irekitzea: Epea bukatu eta hurrengo egunean, eguerdiko batean. Egun hau larunbatarekin suertatzen bada, hurrengo astelehenean irekiko dira.
 • Baldintza teknikoa eta klausula administratiboen plegua Udal idazkaritzan ikusgai egongo dira.

PROPOSAMEN EREDUA

Jirak helbidea: _____ telefonoa: _____
 N.A.N. _____ Enpresa Kalifikazio Agiria _____ (Aldiz-
 kariaren data) _____ garen Nafarroako Aldizkari Ofizialean salgai
 dagoela iragarritzen den oihan lotes eslebitu izan dakion eska-
 rzen du, eta horretarako balorazio teknikoa eta gaineko baldin-
 tzak onartu eta _____ (zenbakiz eta letraz) _____ euro ordaintzea
 eskaintzen du.

Bera, 2004.12.16

ALKATEA

Helena Santesteban Guelbenzu

BERAko UDALA AYUNTAMIENTO DE BERA

6.S-eko UE1eko BORONDATEZKO BIRZATIKETA PROIEKTUA, BIRZATIKETA BATZORDEAREN ESKRITURAK ETA HIRIGINTZA HITZARMENA HASIERA BATEZ ONESTEA: ESTEBAN IGOA ETA 3 GEHIAGO

2005eko otsailaren 8an, Udal Tokiko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoren dagoen erabakia onetsi zuen:

- 1.- ESTEBAN IGOA ETA BESTE 3 GEHIAGOK aurkeztutako 6. Sektoreko U.E. 1eko Borondatezko Birzatiketa Proiektua hasiera batez onestea.
- 2.- Interesatuak aurkeztutako Birzatiketa Batzordea osatzeko eginko eskritura publikoa hasiera batez onestea.
- 3.- Izapidetzen ari den Hirigintza komenian buzuz zera adieraztea: Hirigintza aprobetxamenduanen %10aren balorazioa udal arkitektoek eginko peritaren balorazioarena izanen da eta ordaintzeko momentua birzatiketa proiektua behin betiko onesten denean zeren komenio hau hornegandik baitator.
- 4.- Aipatu Birzatiketa Proiektua, Birzatiketa Batzordea osatzeko eskritura publikoa eta Hirigintza Hitzarmenaren testua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Iragarri Taulan eta, Nafarroan edatitzen diren egunkarietan, bederen, aldez aurretik argitaratuta, 20 eguneko epean jendaurrean jarria.
- 5.- Jendaurreko informazioaldian Birzatiketa Proiektua eta Birzatiketa Batzordea osatzeko eskritura publikoaren aurkako alegaziorik ez badira aurkeztu, hauen hasierako onestena behin betikotzat joko dela adieraztea.
- 6.- Erabaki hau interesatuari bidaltzea.

Bera, 2005.02.18

ALKATEA

Helena Santesteban Guelbenzu

Argazki soilak: 3,5 E. Bikoitza: 7 E. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,28E ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 E ko txekak. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.



Julen SAIZ SERRANO 13 urte beteko ditu martxoaren 8an. Zorionak Bera eta Elizondoko atari, tsaba, eta lehengusuen partetik.



Andoni AUZOBERRY 42-kantrarik 3 urte bete ditu otsailaren 19an. Zorionak eta mami bat Azkargo eta Donapaleuko familieren partetik.



Maiana ALZUGUREN 6an beratarik 3 urte beteko ditu martxoaren 12an. Zorionak eta auzitx urtez zure lehengusu Josu eta Xuberen partetik.



Elizondoko GARAZI SAROBE 2 urte beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak gure sorgintxoari, Leska eta Inufeko familieren partetik.



Uxoa AGERRE 2 urte beteko ditu martxoaren 11n. Auzitx urtez aita, ama, Oihan anaien eta familieren partetik.



Irrene ZELAITA beratarik 21 urte bete ditu martxoaren 8an. Zorionak aita, ama eta Julenaren partetik. Ondo pasa eguna.



Elgorriagako **Unai** eta **Fran IBAÑETA** martxoaren 8an eta 8an urteak betetzeko. Zorionak eta mami handi bat atxekoen partetik.



Zorionak familieren partetik aita-samearendako. Unaiak martxoaren 18an eta martxoaren 13an beteko dituzte.



Zorionak familieren partetik aita-samearendako. Unaiak martxoaren 18an eta martxoaren 13an beteko dituzte.



Maiana ALZUGUREN beratarik 3 urte beteko ditu martxoaren 12an. Mami handi bat gure sorgin txikiak.



Maialen ETXEBARRI zugarimundiarik urte bat beteko du martxoaren 26an. Zorionak familieren partetik.



Ainhoa AGUILERA beratarik 15an 7 urte egiten ditu. Zorionak "txapeliduna". Aita, ama, Alaitz eta Gariñen partetik.



Ederne ZUBIETZA Sunbiliko tpi-kamare xamarrik urteak beteko ditu martxoaren 18an. Zorionak bertsoari zure miresekin partetik.

"GURE IRRATIA" BIDE GURUTZEAN!!

GURE ERRONKA:

EUSKARAREN BIZIRAUPENA

EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN

GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPERA DAUKA

BIHAR EUSKARA BIZI DADIN

LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN

Lapurdikoko Herri Irratiak bere 23 urteko istorian

aldaketa nagusia biziko du aurten:

lokal berri bat eraikitzen doa

eta zure laguntza baitezpadakoa du.

Gure Lokala

Igar Euskal Herria euskara desagertzea oraintzen ez duguleko eskerrak zure laguntza preminabagarrik gaitzeko.

Herritarren sustengutegian zaituzteko:

Igar Euskal Herria: Credit Mutual: 15698 05277 00050514940 64

Hego Euskal Herria: Euskadiko Kutxa: 3035 0059 81 0590071390



Gure Lokala



NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,27 EUROKO 13 SEILO

TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:



ttipi-ttapa
Andutzeta, 12
31760 ETXALAR

t r u

m r t x k¹¹ s t r l

Musk zuz n n LU t m n.

M U

n t k ' k

n

m r t x k¹² l r u n t

E I T X K 12€ + K ntsum z

+ K KEIN

n t k ' k

€ + K ntsum z

m r t x k¹ s t r l

Musk zuz n n LU t m n.

MISTTE E E ST

n t k ' k

n

m r t x k¹ l r u n t

J I MEXIK

M u l n I M r t x K n t n

n t k ' k

€ + K ntsum z

3

m r t x k² r t z u n

Musk zuz n n LU t m n.

n t k ' k

n

m r t x k²⁵ s t r l

ISK TEK

n t k ' k

m r t x k² l r u n t

E F C N S

n t k ' k

12€ + K ntsum z

€ + K ntsum z



K MI NET -T XI K t n z n n tuzu s r n.
7 551 273 • 77 17

z k r l s r r n. n i z n r t € + k ntsum z | s t r l r s r r n

E l z n (N f r r)

GRABATUAK



KRISTALA



ISPILUAK



LEIHOAK



ALUMINIOA



BARANDAK



ATEAK



**Etor zaitez
 gure erakusketa
 ikustera,
 asteburuak barne**

IRUGLASS

Aluminio Aroztegia eta Kristaldegia
 Frain 9-10 • 31790 Igantzi • Nafarroa
 Tel: (34) 948 637 412 • Fax: (34) 948 637 800
 e-mail: iruglass@iruglass.com
 www.iruglass.com



Certificado de calidad para el sector del aluminio en España.

Certificado de calidad para la producción de perfiles de aluminio por extrusión.

Sistema de control certificado en aluminio de alta calidad "ET 02" sobre la permeabilidad al agua y la resistencia a la carga de viento.

